

Bigarren hizkuntzak Resurreccion M.^a Azkueren kontagintzan

Segundas lenguas en la narrativa de Resurrección
M.^a Azkue

Secondes langues dans le récit de Resurrección
M.^a Azkue

Second languages in the narrative of Resurrección
M.^a Azkue

TOLEDO LEZETA, Ana
Euskaltzain osoa
Full member of the Academy of Basque language
atoledo@deusto.es

Noiz jaso: 2022-03-31
Noiz onartua: 2022-06-08

Musika eta hizkuntzak erakargarri zituen R. M.^a Azkuek kontakizunean bertan bi jakintza-esparru hauek erabiltzen ditu. Istorio orotan alor horietara jotzen du. Bi eleberri osatu zituen. *Ardi galduan* (1918) estandarizatuta ez dagoen euskararen kode bateratua aukeratzen du, baina idazketa horretan gaztelania, frantsesa, latina, eta ingelesa ere eranstean ditu, eta, bigarreanean, argitaratzea lortu ez zuen *Latsibin*, bizkaiera erabili zuen eta aurrenekoan txer-tatutako bost mintzairen artean, beste bi gehitzen du: grekoa eta italiera hain zuzen ere.

Gako-hitzak: kode bateratua, bizkaiera, beste hizkuntzak.

A R. M.^a Azkue le atraen las lenguas y la música. En sus narraciones recurrió a lo que le interesaba, aunque solamente escribió dos novelas, en la primera, *Ardi galdua* (1918) el objetivo es presentar un código unificado de euskara, pero incorporando otras lenguajes como el castellano, el francés, el latín y el inglés. En su segunda novela, *Latsibi*, que no logró publicar, añadió el griego y el italiano a los cinco idiomas utilizados en su primera novela.

Palabras clave: código unificado, vizcaíno, otras lenguas.

Euskera. 2022, 67. 115-153. Bilbo
ISSN 0210-1564

R. M.^a Azkue était attiré par les langues et par la musique. Dans ses récits il avait recours à ses deux sujets de prédilection. Il écrivit deux romans. Dans le premier, *Ardi galdua* (1918) il avait choisi un code unifié d'un basque non standardisé dans lequel figurent d'autres langues comme l'espagnol, le français, le latin et l'anglais. Dans son second roman, *Latsibi*, qu'il ne parvint pas à publier, il utilisa le biscayen et ajouta le grec et l'italien aux cinq langues déjà citées.

Mots-clés : code unifié, biscayen, autres langues.

R. M.^a Azkue is attracted to languages and music. In his narrations he resorted to what interested him, although he only wrote two novels, in the first, *Ardi galdua* (1918) the objective is to present a unified code of Euskara, but incorporating other languages such as Spanish, French, Latin and English. In his second novel, *Latsibi*, which failed to get published, he added Greek and Italian to the five languages used in his first novel.

Keywords: unified code, Biscayan, other languages.

TOLEDO LEZETA, Ana (2022). «Second languages in the narrative of Resurrección M.^a Azkue», *Euskera*, 2022, 67: 115-153.

R. M.^a Azkuek (1864-1951) euskaraz osatu zituen bi eleberrietan beste mintzaira batzuk eransten ditu: *Ardi galduan* (1918), gaztelania, frantsesa, latina, eta ingelesa, eta, argitaratu ez zuen *Latsibin*, horiez gainera, italiera. Jazoerak garatzen diren tokietan gaztelania hizkuntza ofiziala zen eta hildako grekoak eta latinak irauten zuten jaso zen aldetik, nahiz eta bi horietan egon bazegoen alderik, eliza katolikoaren hizkuntza liturgiko eta formala izateagatik latina. Osterantzekoak gertalekukoentzat hain ezagunak ez izan arren, bazuten osperik; izan ere, grekoa hizkuntza klasikoa zen, eta frantsesa, berriz, XVII. mendetik XIX. mendearen amaiera arte europar gehienek bigarren hizkuntza zen, XX. mendetik aitzina, ingelesak irabazi bazion ere. Voltaireren esanetan, XVI. mendean italieraz burutu ziren idazlan betierekoen bidez Europa menderatzeko ahalmena zukeen.¹ Beraz, istorioa kontatzeko aukeratu duen eleari, ezaugarri horien jabe direnak emendatzen dizkio. Horregatik, lantegi honen jomuga da gehitutako mintzairaren baliabidearen erabilera azaltzea.

Helburu oso desberdinak dituzte bi istorioek, hain justu, *Latsibin* ez bezala, *Ardi galduak* mamitzen duen hizkuntzan bertan jartzen duelako xede: estandarizatuta ez dagoen euskarari leku egitea, kode bateratua erakustea. Hortaz, kontakizunaren bitartez agertzen du estandarizatu nahi lukeen eredu. Bi eleberrien arteko jomugak banatu arren, bat egiten dute beste mintzaira batzuk gehitzeak.

Ardi galduan euskara batzeko gipuzkera osotura jo ostean, *Latsibin* ez du jarraitzen eredu horrekin. Gordeta zegoen eskuizkribua 1989an plazaratu zenean, L. Villasantek *Ardi galduaren* aurretik gauzatutakoa zela zioen, kode bateratua proposatu ondoren, euskalki bat ez zuela aukeratuko uste zuelako,² baina ez zuen asmatu, zehazki, horixe egin zuelako, eta lehena amaituaz bat bigarrenari ekin zion, J. Kintanak (2008: 303) jakinarazi duenez.

¹ “Sur la langue italienne même que pour ses ouvres immortelles du XVIe siècle était en possession de dominer l’Europe”. *Dictionnaire philosophique. Oeuvres complètes*. Vol. III, Garnier, Paris, 1878, 558.

² “1919. urtean argitaratzen du Azkuek *Ardi Galdua* deritzon elaberria, gipuzkera osotuan egina. *Latsibi*, berriz, bizkaieraz dago, eta xehetasun honek beronek *Latsibi* lehenagokoa dela susmarazten digu” (*Latsibi*, 1989, XII).

Asmo linguistikoa zuenean eta ez zuenean beste ele batzuen bitartekoa usatzen duenez, honi egotzitako zeregina aztertuko da.

1. Azkueren eleberrien aurkezpena

Herri batetik bestera bidalitako hamahiru eskutitzekin eratzen da *Ardi galdua*ko eleberria. Izenburuak iragarritako ardi galdua Emeterio edo Medel Olazarreta da, eta bere emazte Eladi hiltzean, horren ahizpa Isabelekin ezkontzea eskatzen dionez amaginarrebak, hauen esku utziz seme Leon, Leaburutik Kaliforniara irteten da. Kalifornian fedez mudatzen du, eta protestantea zen bere bazkidearen alabarekin, Alicerekin, ezkondu ostean bisitatzen dute bere jaioterria. Berriz alarguntzen da, eta aitzinago betikoz Leaburura itzulita, frantziskotarrak misio-lanetan etorri ziren batean, haiek erdiesten dute ardi galdua berriro artegian sartzea.

Gutunak Gipuzkoan idatzitakoak dira, gipuzkoarra zen Medelek Kalifornian ondutako biak salbu. Dena den, lurralde honetan gipuzkeraz bestalde, beste bi euskalki baliatzen dira, nahiz eta hamar eskutitz egileetako bosten jaioterriaren berri eman, lau Leaburukoak eta bosgarrena Gaintzakoa, osterantzekoena ezezagun izan arren, gipuzkeraren jabe dira. Laburbilduz, euskalkiaren aurretik lurraldea jartzen du, hain zuzen, gutunetako bi frantziskotarrak Arantzazutik igorritakoak direlako, hots, bizkaieraren eremutik, baina, ez dakigu zein euskalki bereganatu zuten haurtzaroan, ezta gainerako apaizek ere, Leaburukoak izan ezik. Hortaz, elizgizonek duten destinetik egikaritzen dituzte gutunak.

Hurrengoa eleberria da, azkena, plazaratzea lortu ez zuen *Latsibi*. Bigarren honetan moldez aldatzen du, dela eskutitza kontalariarekin trukatu, dela Gipuzkoatik Bizkaira igaroz, dela gipuzkera osotua bizkaierarekin ordeztuz, dela korapiloa erlijioan ezarri ondoren, politikan egokituz. Xedeak desberdinak izanagatik, badute lokaririk, nola lantzeko erabilitako mintzairari beste batzuk eranstea, hala eskaintza jasotzen dutenen bizilekuan kokatzea jazoerak.

Ardi galdua kaleratu zenean Leaburuko parrokia gobernatzen zutenei eskaini zitzairen, eta, *Latsibi*, Mungiako zen Galartza Bizkaiko Foru Aldundiko

ahaldunari. Batak eta besteak eskaintza irabazita zeukaten, preseski, Leaburuko apaizak izan zirelako *Ardi galduaren* egileari gertalekua zehaztu ziotenak, eta Foru Aldundiko ahalduna izan zelako Bizkaiko euskarako lehen katedraren sortzailea, justu, Azkuek 1888an irabazi zuena.

Euskararentzat kode bateratu aiposena gipuzkera osotua zela erabakitzean, Azkue Beizamara joan zen kontakizunerako aukeratu duen tokia ikustera. Aitabitxi dituen “adiskide eta bereterkide gartsu” (53)³ horietako batek bestelako iritzia zuenez, Beizamatik Leaburura bideratzen da, adiskideekin batzeko eta apaiz horiek izango dira bide-erakusleak. Mudantza txikerra zen, biak bizilagun gutxi zituzten herri txiki-txikiak baitziren, soilik baserria bizibide zituztenak, eta latina izan ezik, osterantzeko eleak arrotz zituztenak.

Latsibin euskarako aurreneko katedra ezarri zuen Bizkaiko Foru Aldundiko ahaldunaren jaioterrian, Mungian, garatzen da istorioaren gunea, 1890eko Bizkaiko Foru Aldundiko hauteskundeetako kanpainaren ibilera kontatuz. Iraupen nabarmen luzeagoa dute *Ardi galduako* gorabeherak, Galartzak xedapena indarrean jarri zuen urtean hasiz, 1887an, eta 1901ean amaituz.

Bi kontakizunak garai berekoak badira ere, gai oso desberdina jorratzeaz gain, banantzen ditu gertalekuak, gaztelania ezezagun zuten esparrua (Leaburu) ezagun zutenarekin (Mungia) lekualdatzen du. Gainerako mintzairerakin berdín joka zezakeen, bietan daudelako erbesteratzen direnak eta ikasketak dituzten pertsonaiak. *Ardi galduan* elizgizon ugari sartu ostean, modu askotako lanbideen jabe direnak barneratzen ditu *Latsibin*, sendagileak, legegizonak, botikaria, idazkariak, eskribaua, kutxazaina, eskola-maisua, apaiza, organista... Baita lehenbizikoan tirabira banako mailan kokatu ondoren ere, bigarrenean talde mailara eroaten du, karlistak eta liberalak aurrez aurre ipiniz.

Kontalariak jakinarazten du Mungiako bigarren Gerra Punikoa kontatze-
ra datorrela: historian gertatu zen bigarren Gerra Punikoa erromatarren
gudalburu izan zen Szpion, Mungiako Donato Arraitz Sagastik, ezizenez

³ *Ardi galdua*, 2018.

“Begi”-k, ordezkatu du, eta, kartagotarren guda buru izan zen Anibal, Pedro Viñas y Andresek, ezizenez “Epiko”-k. Asmatutako bigarren Puni-koaren guda buruak sendagile izateak bakarrik elkartzen ditu, ez politikak, ez jaioterriak ere; karlistenena mungiarra da eta liberalena Puerto Ricokoa: “Euskeraz izketan eztakiana” (48). Karlisten guda buruaren ostea osatzen dutenak, batik bat, hauek dira: guda buruaren koinatu Zabaleta eskribaua, Bizkaiko ahalduna den eta berritzeko aurkezten den Jose Andres Agirre legegizona, ezizenez “Bekosolo”, Larrinoa botikaria eta Gatikako sakristaua, Anton Imaz kantaria eta organistaz gain, Blas Mendiola apaiza. Liberalen guda buruaren ostean parte hartzen dutenak dira jatorriz jatabetarra den Ambrosio Isasti Intxaurtiaga, ezizenez “Don Anbrus” edo “Aginbako” indianoa, honek aukeratutako hautagaia, bere iloba Tomas Torrealdea Isasti legegizona, ezizenez “Morrosko”, honen arreba, ezizenez “Tete”, Juan Andracka Urizar kutxazaina, ezizenez “Busturi”, Jatabeko idazkaria Ereñozi, Mungiako Foru Aldundiko ahaldun zen Juan Arangoiti legegizona, honen emaztea Dña Isidora Hayedo, Ortiz de Treviño eskola-maisua, Olabe gozoglea eta Floren Andracka ogi-saltzailea.

Ardi galduan euskararen kode bateratua erakusteko fikziora jotzen du. Egitasmo linguistiko horri erantzuteko egokia izan zitekeen gutunen bidez kontakizuna gauzatzea eta hamar gutun-egiletatik zortzi ikasketak dituztenak izatea, zazpi apaiz eta kazetari bat. Zortzi horiek uztartzen ditu idazketarekin duten loturagatik, eta ez lanbide horretan erabilitako mintzairagatik; izan ere, apaizak izan dira eliztarren arima zaintzeko euskarazko testu gehien mamitu dituztenak XX. mende arte; kazetariak, aldiz, beste hizkuntza bat lehenetsi dute. Orobat, sasoi horretan elkartu ezin ziren jendearen artean ohikoa zen eskutitzaren bitartez harremanetan jartzea.

Hamar gutun-egiletatik hiru laikoak dira, Gaintzako kazetaria eta Leaburuko Medel eta honen koinata Isabel. Apaizek euskararekin izan duten ibilbidearekin, sinesgarritasunari eusten zioten, ez horrenbeste laikoaren artean, hiru horietatik bik ikasketak ez zituztenez, nekez zeukatzen beren euskalkia gaingitzea eskutitzetan.

Zehazki, ikasketarik gabeko bi leaburuar horiek dira istorioaren bultzatzaileak. Medelek jaioterria uzten du amaginarrebak proposatutako ezkon-

tza ez onartzeagatik eta, justu, baztertu duen ezkontidea da Medelek erbeste-
tean egin duen fede-aldaketaren albistea barreiatzen duena. Berri hori
apezpikutegira ere iritsi delako, Leon apaiztean, nahi zuen destinoa, Leabu-
ru, kentzen diote. Gutun-egileetako apaiz bat arduratu zen eragozpen hori
saihesteaz, nahiz eta ezezagun dugun zein bideri heldu zion, hain zuzen,
Gasteizko Apezpikutzak Azkueri eskatu ziolako hark idatzitakoa berregitea
erakundearen baimena izan zezan. Eleberria inprimatzen ziharduenean ai-
legatzen zaio jakinarazpena, eta eskutitz hori birmoldatzen du. Gasteizko
Apezpikutzako zentsuratzaileak bigarren bertsioa ontzat hartzen du, eta
hori da Azkuek plazaratzen duena.

Eman dioten zigorrarengatik oso haserre dago egilea, aitortuz, hurrengo
eleberrian, “nazana nazanez, promes egiten dot lan barriaren orrialdeetan
ez sotanarik, ez habiturik, ez beaten mantilarik eta ezta latinazo txikerrenik
ere, sartuko ez dodala”.⁴

Bere buruari agindutakoa ia erabat betetzen du argitaratzea lortu ez zuen
Latsibin. Ez dago abitudunik, ez beaten mantilarik, sotanadunen ahotsetik
hitz urriak irteten dira eta ikasketak dituzten laiko ugari sartzeaz bestalde,
latinismoen txertaketa nabarmen gutxitzen du. *Ardi galduarekin* jasotako
zartadarengatik zein bestelako asmoak izateagatik, korapiloz zeharo muda-
tzen du, gunea erlijioa izatetik, politikara.

Latsibi kaleratzeaz saiatu arren, ez zuen jadetsi. Baita, berriro talka egin
ere Gasteizko Apezpikutzarekin, 1935ean Mateo Muxika gotzainak igortzen
dion eskutitzak agerian lagatzen duenez:

... es a juicio del censor –que hago mío– inconveniente e inoportu-
no darlo ahora a la publicidad, porque toda la fábula versa sobre unas
supuestas elecciones a diputados, verificadas, ahora hace algunos años,
en la villa de Munguia. Se fingen los preliminares de semejantes elec-
ciones, la proclamación de candidatos, la labor de propaganda en los
mitines; se suponen coacciones y sobornos, se falsifican actas ... [...] por
lo que, repito, estimo que la publicación de ‘Latsibi’ no es oportuna
en las circunstancias por las que atravesamos. (Kintana 2008: 304-305)

⁴ Erkiaga, E., 1985, “Azkueren ‘Ardi galdua’ zentsurape 1918gn.”, *Idatz & Mintz*, 9 (1985), 33.

Urte horretan gotzainak desegokitzen atzematen badu editatzea, hortik aurrera egoera okertu zen, handik urtebetera 1936ko gerra zibila hasten da eta amaitzean, diktadura. Horiek horrela, Azkuerentzat oso zaila zen inprimatzea.

Eskaintza jasotzen duten bizilekuan kokatzen da istorio bakoitza, eta eleberriak aurkeztu ostean oratuko zaio aztergaiari, gaineratutako mintzairen baliabideari, lehenbizi kontakizunetan itsatsitakoak bilduz eta arakaturaz, azkenik, ondorioak ateratzeko.

2. Gehitutako hizkuntzak

Jakina, mintzairen gaia oso gogokoa zuen Azkuek, asko landu zuen, joan-etorri eta egonaldi franko egin zituen bere ama-hizkuntza eta beste zenbait hobeto ezagutzeko. XIX. mendearen azken hamarkadan heltzen dio kontakizunari eta *Lenengo irakurgaia. Bein da betiko* (1893) ez ezik (“irakurgaia: nobela”, Azkueren azalpenaren arabera), aldizkarietan aldika plazaratu zituen, “Peru Matraka ta Pedr’anton” *La Abejan* (1889-1890), “Batsi Guzur” edo “Kristobal andia” sortu zuen *Euskalzalen* (1897-1899), “Gran-kanton arrantsaleak” zabaltzea baztertuz.⁵ Kontakizun orotan beste elebartzuk sartzen ditu, dela gaztelania, *Bein da betikon*, esaterako, “*¿Quién eres?*” (93)⁶, dela ingelesa, “Batsi Guzur”-en “*Du dsu laik tu dans uit mi*” (*Euskalzale*, I, 1897: 141) kontakizunean bertan, oin-oharrera eramanaz idazketa-arauak agintzen duena, “Do you like to dance with me”. “*Very well*” (156) oin-oharrean euskaratzen du, eta kostako euskaldunek baliatzen duten berbaren ordekoa ipintzen du galegoz eta ingelesez, “Bonboa esaten da gure itsaserrietan Galiziarren *falucho*, ingelesez *Vessel*-gaiti” (221), nahiz eta, ia etengabe erabilitako euskal hitzaren esanahia sinonimoaren ala gaztelaniaren bitartez argitzen duen, nola jarraian, “Kristobal andia”-n, “koblakari bat (*trovador* erderaz)” (*Euskalzale*, I, 1897: 92), hala oin-oharrean.

⁵ Arana Martijak eskuizkribuaren faksimilea argitaratu ostean, Idatz & Mintz bilduman argitaratu eman zuten: *Euskera*, 1988, XXXIII: 379-389, *Idatz & Mintz*, 1991, 21: 4-6.

⁶ Hitzak jaso dira I. Pagolaren ediziotik: *Bein da betiko. Batsi guzur*, Erein, Donostia, 1986.

Berben esangura erakusteko zereginen beti araua gordetzen du, baina kontakizunean pertsonaiek beste mintzaira batera jotzen dutenean, bi bide hartzen ditu, araua eta ahoskera, “Batsi Guzur”-ek baieztatzen duenez, ebareran oinarritutako ingelesari gaztelania gehituz: “*y la vida perdurable esan-biarrian bira-bira perdurable esan*” (166).

Bi hamarkadatan zehar alde batera uzten du fikzioa eta generoa bultzatu besterik ez zuen egin. *Euskalzale* aldizkaria martxan jartzen duenean Azkuek, lehen alean iragartzen du lehiaketa literarioa, besteak beste, eleberriri leku eginaz, eta mota horretako lehiaketa Txomin Agirrek irabazi zuenean, euskarazko lehen eleberraren egilea zela aldarrikatuta zeukan berak, bere buruari kentzen dio, sariaren jabe den *Auñemendiko Loreari* (1898) eskainiz. Istorio bat kontatzen zuen liburu bakarra argitaratu zuen Azkuek XIX. mendean, eta izenburuaren aitzinetik gaztigitzen du aurrenekoa dela: *Lenengo irakurgaia. Bein da betiko*. Ohoreaz desjabetzen du bere burua kontakizunean ezarritako hitz-kopuruarengatik, ulertuz, neurri txiki-koa zela eta Agirrek aurkeztutakoa nabarmen luzeagoa. Argitaratu zuen “lenengo irakurgai” horretatik hogeita bost urtera kaleratu zuen bigarrena eta atzena, hirugarrena, eskuizkribuan geratu zen.

Bi eleberrietako gertalekuetara iritsi dira gaztelania eta latina; latina, batik bat, hizkuntza liturgikoa den aldetik. Ezaugarri horrek banantzen ditu osterantzekoetatik eta horregatik ematen zaio gaztelaniari euskarazko berbaren esangura zehaztea, mailegua ala jatorrizkoa usatuz.

Bi kontakizunetan emendatutako langai honek ontzailearen zaletasunak ditu iturri: hizkuntzak eta musika. Mintzairan bertan kokatzen du gunea ingelesarekin, eta italiarekin, berriz, musikan. Grekoa eta latina hildako ele jantziak ziren, eta frantsesa, istorioak garatzen diren garaian Europako eliteen bigarren hizkuntza izateaz gain, ikasketak dituztenen gertalekukoena zen. Horiei gehitzen zaie ingelesa eta gaztelania.

Halaber, justifikatu egiten ditu erantsitakoen erabilera. *Ardi galduan* euskaldun bat bidaltzen du Kaliforniara eta *Latsibin* Milanera musika ikasteko asmoarekin, apaizak-eta ikasketak dituztenak dira, latina, grekoa, frantsesa edo italiara itsasten dutenak.

Istorioen korapiloa, lehenbizikoan erlijioan finkatzen bada, eta, azkenean hauteskundeak irabazteko moduan, gaineratutako eleak muin horretatik at daude. Ekarrirako guztiek ez dute partekatzen lantegi bera. Latinarri, grekoari, frantsesari eta italierari emari dotorea izatea egozten zaie; musikarekin lotzen ez duen ingelesari munduan ibiltzeko onena izatea esleitzen zaio, eta gaztelaniari bertako euskararen baldintzatzaile izatea.

2.1. Kultura-ondarea: latina, frantsesa, italiara, grekoa

Lau hizkuntza landuen azterketari helduko zaio txertatutakoak bilduz, musika ardatz dutenekin hasiz eta jarraituz mintzaira bera dutenekin.

Ardi galduan Aita Mendirik Leaburuko misioen kariaz Aita probintzialarentzat ondutako txostenean, latinez kantatu zituzten eresien izenburuak ipintzen ditu: “*O salutaris*” (268), Faureren “*Crucifix*” (268), “*Te deum*” (300), “*Laudamus, laudamus te*” (302).

Leon Olazarreta apaizak Aita Gabriel Batizi zuzendutakoan jakinarazten dio bere aitak, Medelek, Hermann-en “*Benedictus*” (318) aukeratuko zukeela.

Aurrenekoan bost izendatu ostean, *Latsibin*, latinezko bakarra. Hauteskundeetan karlistek gudaiburu duten Donato Arraitzen ahotsetik irteten da Gatikako sakristau, organista eta kantariaz diharduela:

Elizkarietan (...) Gatikako sakristaua eroaten dabe, ta *Parce mihi* ta olango zerbait entzun eragiten dauzanean, edonor egoten dako agoa zabalik. (...). Ikustekoak izaten dira aren begiak *Parce* orren azkenaldean *Peccavi*-ra eltzen danean (92).

Frantsesezko eresi bat agertzen da *Ardi galduan*, Aita Mendirik Aita probintzialari igorritako txostenean, Leaburuko misio-lanetan Arizpe apaizak kantatutakoa txertatuz:

Vous qui pleurez, venez a ce Dieu, car il pleure. / Vous qui souffrez, venez a Lui, car il guérit. / Vous que tremblez, venez a Lui, car il demeure. / Vous qui pleurez, venez a ce Dieu car il pleure. / *Ar-tzain-ak dei ta ar-dia ha-ren-gan – dik i – hesi...* (268).

Latsibin, Arangoiti liberalak “*La favorita*” (197) aipatzen du, ez jatorrizkoa zen *La favorite*.

Laburbilduz, lehenengoan, elizkizunetan ezartzen du musika, frantziskotarrak Leaburun misio-lanetan zebiltzanean, eta bigarrenean bat baino ez. Korapiloa erlijioa kokagune zuena hauteskundeengatik ordeztuan, profanoak nagusitzen dira eta, batez ere, italierazkoak. Hain zuzen, horregatik bidaltzen du Milanera Anton Imaz musika-ikasketak osatzeko eta kantatzen du:

Yalto la: rumor di passi io sento. / Nell'ombra io non discerno / se molti sono, e armati. / Voi, che di notte andate, / che mai volete qui (30).

Hurrengoa, Zabaleta eskribauarekin batera:

... rumor di passi io sento, / Nell'ombra io non discerno / se molti sono e armati. / Voi, che di notte andate / che mai volete qui? (195).

Ospakizun bat dutenean, “*Pieta Signore*”-rekin (226) hasiz, “*Pieta Signore di me do – len – te Sig nor pie ta, - se a te giun ge il mi – o pre – gar, non mi pu – nis – ca il tu - o ri - gor*” (227) eta horren ondoren, “*Pieta Signore-ren bigarren atala*”ri (229) oratuz. Hortik “*Salu te cui, la gloria e ter na poi, ‘Osasuna orain, gero betiko bizitza’-ra igarotzen dira* (263), geroago, “*col suo temuto e formidabil brando...*” (266) eta, azkenik, “*Voi che di notte andaaate, iche maaaai volete cuiiii*” (266). Euskaratzen ditu, ia beti oin-oharrean.

Musikatik kanpo, *Ardi galduan* elizgizonek ez ezik, laikoek ere baliatzen dute latinezko hitzen bat, nola Leaburuko Isabelek bere ahizpa Sor Katalinari bideratutakoan, “*Meritissimus*” (102), hala Vasco de Gaintza kazetariak *Ecos del Urumea* egunkariaren zuzendariari igorritako kronikan, “*ora pro nobis*” (198).

Bi laiko hauek ez dituzte euskaratzen, ezta zenbait apaizek erabilitako latinismo laburrak ere. Lasarteko Andres Artesarrik Azpeitikoari zuzendutakoan, “*quinque talenta*” (214) dio, Azpeitikoak Emeterio Olazarretari helarazitakoan, “*Intelliginti pauca*” (232), “*recipe*” (234) eta “*accipe*” (234). Belauntzako Agustin Basaldek *Siglo Futuro* egunkarian maiz irakurtzen zuen “*Bonum ex integra causa*” (252) sartzen du Azpeitikoari idatzitakoan; Aita Mendirik Leaburuko misio-lanei buruz Aita probintzialarentzat egindako

txostenean, “gloria” (290), “alleluya” (290), “gloriarik” (292), “alleluia” (293), “Allehuya, allehuya” (292, 296), “alleluyak” (292), “Allehuya, allehuya, allehuya!!” (300), “Deo gratias” (296) eta Fr. Gabriel Batizek Leaburuko Olazarreta aita-semeei bidalitakoan, “Pater Pulvis” (314).

Aldiz, esaera luzeagoa edo ezohikoa denean, euskaratzen dituzte. Lasarteko Andres Artesarrik Azpeitikoari lehen elizpe zaharraren ateburuan ezarrita dagoen “*Inveni portum. Spes, fortuna: valete*” idazkuna jakinarazten dio, gaineratuz, apaiz gazte batek “hexametro” osoa izateko beharrezko duen berba erantsiz, “*Inveni portum. Nunc spes, fortuna: valete*” (208) eta fraide zahar batek landutako itzulpena emendatuz, “*Kaya ementxe det, gazte. / Itxaropen, zori: zoazte*” (208). Azpeitikoak Emeterio Olazarretarentzat gauzatu-takoan Virgilioren “*Post nubila Phebus*” dakar, “laino- ondoan eguzkia” (228), berriro latinezkoa errepikatuz (230). Belauntzatik Agustin Basaldek Azpeitikoarentzat mamitutakoan, “*integer, osoa*” (252), eta, aurrerago, “*top capita quot sententiae* ‘buru bezanbat aburu’” (254). Aita Mendirik Aita probintzialarentzat osatutako txostenean, burura datorcion asmoa adierazten du: “*Hoc genus (demoniorum) in nullo potest exire nisi in oratione et jejunio* ‘Onelako txerren-mota otoitzez eta baruz baizik ezin erauzi diteke’” (280).

Baita aldrebes jokatu ere, baliatutako euskal hitzaren esanahia latinaren medioz zehaztuz, Belauntzako Agustin Basaldek “*ezta zilegi (non licet)*” (252), “*eztezu zilegi (non licet tibi)*” (252) idatziz, zein Aita Mendirik, “*bikondean (a duo)*” (262), “*gizeli (multitudo gentium)*” (274) txostenean ipiniz.

Latsibin latinera gutxiago jotzeaz bestalde, ez ditu harremanetan jartzen latina eta euskara. Bi eleberriak bereizten ditu xedeak, kontakizuna eratzeke modua, korapiloaren gunea..., nahiz eta beste mintzairen bitartekoak lotzen dituen. Kode bateratuarekin jarraitzea bertan behera lagatzen du, eskutitz-egileen bidez ondu ostean, kontalariak kontatzen du istorioa, katramila erlijioan finkatetik hauteskunde politikoetara igarotzen da... Lehenbizikoan abitudunak ziren buruzagiak, eta bigarreanean laikoak, ikasketak dituzten pertsonaia laikoak gehitzen ditu eta elizgizonenak nabarmen jaisten; izan ere, bi apaizi besterik ez zaie ematen hitza, baina horien ahotsetik ateratzen dena oso murrizta da, Jatabeko parrokiakoak “*Ne recorderis*” (312) soilik esaten du, eta Gatikako Blas Mandiolak “*suum cuique*” (156), eta gainerakoak euskaraz,

hark ez bezala, honek karlisten gudaiburuaren ostean parte hartzen duelako. Kontakizuna euskaraz egitea erabaki duen kontalari berak behin edo behin latina, “*Casus belli*” (113, 153), eta grekoa, “*Kyrie eleison*” (130), erabiltzen ditu. Osterantzekoak pertsonaia laikoak dira, bai ezezagunek isuritako “*Virgo fidelis*” (38), “*Virgo potens*” (38), “*Virgo clemens*” (38), “*Amen Amen*” (238), “*Pater*” (265), “*post data* edo *post scriptum*” (308-309) esamoldeak, bai Arraitz medikua iturri dituzten “*Ferdinandus dei gratia*” (35), “*similia similibus curantur*” (91), “*similia similibus*” hitzak errepikatuz.

Frantsesa *Ardi galduan* kanta batean soilik baliatu bazuen, *Latsibin* barneratzen ditu mintzaira horren ezaguera desberdina dituzten pertsonaiak. Juan Andreak Urizar-ek, ezizenez “Busturi”-k, “frantzes-apur bat buruan sartu bai” (103) dio, eta Donato Arraitzek “Irakurriaz erdi-ulertzeko bestetxo” (212) esan ondoren, “Biffe edo Buffe” (296) itsasten du. Horiek baino gehiago menderatzen du frantsesa Arangoiti legegizonak, “*petit comité*” (172) ez ezik, eskuan daukan “*Les vies des hommes illustres*” (212) liburutik Demostenesen berbak ere jasoz, “*Des matelots ignorants et crapuleux occupent la tribune et sont écoutés, et moi je suis rejeté avec mépris*” (212-213), kontalariak oin-oharreen euskaratzen dituenak.

Liberalek zein karlistek dute frantsesaren berri, nola “*Adieu, Pasteur*” (91) agertzen duenak, hala euskarazko berba frantsesera itzultzen duenak:

Pedro, Valladolid-tik urtenezkero yan dozu tripakirik?

(...)

(...). Valladoliden *Hotel del Nort*en bidezti órrek, eguneroko yan-txarteletan agiri ezarren, beti eskatu oi dabez tripakiak.

Frantzesez *gras double* dabe izena (149-150) diotsa Epikok Treviñori. “*Tableau*” (151) esan zuen koronelaren alaba andra Isidorak.

Azkenik, frantses batetik dator “*Sé dibin Muxu*” (29) Anton Imazi adierazitakoa, Bordelera joan zenean. Ama-hizkuntza zuenaren idazketa ebakeran oinarritzen da, eta kontalariak arauaren eskakizunak betetzen ditu oin-oharreen.

Ardi galduan ez zeuden grekoa eta italiara sartzen ditu *Latsibin*. Kontalaria arduratzen da grekoaz, “*Akuete, Leos ‘Entzuizue erriak’*” (153) eta “erdal-

dunen ‘*zéfiro*’ (228), latina (*zephyrus*) eta grekoa (*zéphyros*) lotzen ditu; pertsonaiak, berriz, italieraz ari dira, eta ez bakarrik Milanen bereganatu zuen Anton Imazen ahotsetik.

Hauteskundeetan liberalen hautagai den Tomas Torrealdea Isasti legegizonak “*tutti contenti*” (45) dio, eta ahaldun izandako Arangoiti legegizonak “*Ecco il problema*” (149). Horiei batzen zaizkie karlistak, Zabaleta eskribauak “*Nel fuoco eterno*” (207) itsatsiz, Donato Arraitzek “*Eccomi, neu nozu*” (210) eta alkatearen hitz egiteko era imitatuz, “*Signore Anton Imaz*” (263) eta hauen kide batek “*Benissimo*” (211) eransten du. Arangoiti da frantsesaren lorratz nagusia uzten duena, eta italierarena Anton Imaz “*!Dove é il vostro cuore?*” (156) jaurtiz, bizileku izan zuen hiria “*Milano*” (226) zen, horko katedrala, “*il Duomo*” (226), “*Mille grazie, signore*” (229), “*mille grazie... mille grazie... mille grazie*” (230), imitatzen duen “*Evviva Yatabe*” (247) edo “*nobili signori*” (260) eta eskaera bat dela eta, irakaskuntzari oratzen dio, hauteskundeak irabazten dituztenean:

Zelan esaten da italieraz *Egun on, jauna?*

–*Bon giorno mio signore.*

Bestean, zelan *arrasti on* ta *gau on?*

–*Bona sera ta bona notte.*

–*Ta mendia zelan?*

–*Monte* (297-298).

2.2. Bigarren hizkuntza egokiena: ingelesa

Medelek bi eskutitz idazten ditu, biak Kalifornian mamitutakoak. Lehengoan, Leaburuko bikario Adrian Iriondori igorritakoan, ingelesez idatzitakoa itzultzen dio, “(*Street* ingelesez ‘*kale*’ da)” (70), eta bigarreanean, seme Leoni zuzendutakoan, ingelesera jo ez arren, mintzaira balioztatzen du:

Nik nayago nitek euskeraz baino ingelesez irekin mintzatu, ez ingelesa euskera baino maiteago dedalako, bearrago degulako baino. (...) ingeles-mintzoa dek gaur-egunean gizonak bearren duena (90).

Gutun horiek bidali eta gero etortzen da Leaburura, bere bigarren ezkontza herrikideekin ospatzera. *Ecos del Urumea* egunkariak bisita horren berria jasotzen du, eta adierazten du senar-emazteak Donostiako Hotel de Embajadores ostaturik zeudenean, kazetariak “*buenas noches*” (162) esanez agurtzen dituela, eta Medelek “*good evening*” (162) ihardetsi ziola. Hirurak Donostiatik Tolosara trenez joan zirenean, “*Mistress Medel Olazek*”, Alicek Vasco de Gaintzari aitortzen dio euskara “*very very hard, difficult* (oso zaila ta gaitza)” (166) hizkuntza dela. Kronistak “*gentleman*” bezala (166) ikusten du Medel, eta kronikan “*Time is money, aldia dirua dala*” (168) eta “*Word is gold (...): itza urrea dala*” (168) gaineratzen du. Jada Leaburuko ospakizunean daudenean, Alicek “*delicious* (zoragarria)” (182) dio, eta aureskura ateratzea proposatu ziotenean, “*All right*” (188) erantzuten dio senarrak. Txistulariek fandangoari heldu ziotenean, Medelek emazteari adierazten dio “*As the others, (...), as the others* (besteak bezela)” (192), eta bukatzean “*Very well* (oso ederki)” (192). Herritarrek Alice omendu zuten, eta eskertu zioten “*erriko txiroentzat (for the poors)*” (192) berrehun dolar eman izana. Leaburuko oihartzunak gogoan zituela behin eta berriz “*O very beautiful*” (198) burura datorkio kazetariari, eta Medel jaioterritik irten zenean “*Long life Leaburu’ esan zuen; ‘long life’*” (198) emazteak eta Vasco de Gaintzak.

Aita Mendirik txertatzen dituen hitzek Medel dute iturri. Aita probintzialarentzat prestatutako txostenean, Medelek kontatutako albiste ugarie-tako bakar bat azaltzen du:

Goi-Amerika artan (...) erlijio izakietan ezer sinesten eztena.
Itzur bezela (maximatzat) *know nothing* (*nau nacin* esaten zuen berak)
omen dute: euskeraz ‘ezer eztzagut’ esatea bezela (274-276).

Baita, Medelen “*know nothing*” (284) errepikatu ere.

Kontakizuna ixten da Leaburuko bikarioa zen Medelen seme Leonek Aita Batiz frantziskotarrari idatzitakoarekin, Aita Mendirirekin batera misioz arduratu zenari, eta aitaz diharduela, jakinarazten dio arratsaldeetan eskolan kontuak eta ingelesa mutikoei irakasten diela: “*White*”, “*Black*”, “*Good evening*”, “*Good morning*”, “*Good night*”, “*twenty* eta *twenty*”, “*Forty*”, “*Fifteen*”, “*It is good to go to Sacramento*” (320). Halaber, astegunetan muti-

koak pilotan jokatzen jartzen ditu, epaile-lana eginaz, eta tantoak ingelesez aldarrikatzen ditu:

Ten the firts and eleven the others, sirs (amar eskuak (sakeak), atzeak amaika, jaunak). *Fifteen and twenty, sirs* (amabost eta ogei, jaunak) (322).

Mutiko horietako batek, Markoxek, “*Come here*” (322) dio, eta Arberola txikiak “*Play stark, little boy, play stark*” (322). Mutikoa ez den eta Argentinan bizi izandako Martin Lontxo haien mailara ez da iristen: “*tubantipiüüf al pirtüüü*” (326).

“Ardi galdua” frantziskotarren misioetako eskortan barruratu ostean, hamalau urte lehenago Kaliforniatik seme Leoni igorri zion eskutitzean esandako “ingeles-mintzoa dek gaur-egunean gizonak bearren duena” (90) betetzeari ekin dio, haurrak trebatuz munduan ibiltzeko. Euskararen kode bateratua erakustea helburu zuen honetan, Azkuek aukeratzen du sorterritik Kaliforniara joango den pertsonaia nagusia eta bitarteko honen bidez ezagutarazten du zein den bigarren mintzaira aproposena.

Latsibin Britainia Handiko zenbait hiri eta leku batzuk (*Hyde Park, 52, New York: Brooklins’s Bridge, 110*) aipatzen dira, eta ingelesa etorburu duen “*lunch*” (207, 208) baizik ez da eransten.

2.3. Euskararen eremuan sartu den gaztelania

Ardi galduan ez bezala, badago gaztelaniazko kantarik *Latsibin*, Pedro Viñasen habanera “*iCariño! / No hay mejor café / que el de Puertorrico. / iMi niño! / Si lo duda usted, / yo lo certifico. / Ya se ve que sí, / ¡ay! ya se ve que sí. / El que quiera probar / cosa buena, cosa buena, cosa buena, / el que quiera probar cosa buena / que se venga aquí*” (105) zein Anton Imazek izendatzen dituenak, nahiz eta aurreneko aipamenean, “*La flauta encantada*” (29), Mozarten “*Die Zauberflöte*” gaztelaniara itzultzen duen eta bigarrean jatorrizkoari eusten dion, “*Eslavaren Señor omnipotente*” (207).

Ardi galduan, batez ere, gutun-egileek gaztelaniara jotzen dute euskarazko hitzaren esanahia zehazteko. Noiz edo noiz euskarazko sinonimo batek

edo latinak ordezkutzen badu ere, gaztelania erabat nagusitzen da, bere horretan utziz ala mailegatuta. Hona gaztelania hutsean lagatakoak:

Birigaitza (tisis) (62), zerren (metro) (62), landagizona (*El Campero*) (64), burusi (manta) (64), Ikasgu (colegio) (90), otarraina (langosta) (146), elexur (lacónico) (160), peko (esclavo) (164), suziri (cohetes) (174), arteki (episodio) (184), mozkinkutxara (*caja de ahorros*-a) (194), gizuren (héroes) (196), lekaiame (monja) (202), birjosle (bordadora) (202), mintzagura (locutorio-ra) (202), lenizki (iniciales) (202), izkudaburu (almirante) (206), artitz (inscripción) (208), Sarraldi (entrática) (216), alaitasun andia ta jolasaldi etentzakea ta atsedeen osoa (*muchacha alegría, distracción ininterrumpida y completo reposo*) (244), alkeisun edo gaizpide (escándalo) (252), ortzargitasunez (*por simpatía*) (266), apaldia (*estrofa*) (282), errua (culpa)? (294), mukurru (bulto) (306), Bakonde (solo) (314), epailari (juez) (322), arteki (episodio) (324).

Beste zenbaitetan, mailegua aukeratzen du.⁷ Eskutitzen medioz kontatu arren istorioa, gutun-egileek ez dute baztertzen pertsonaien arteko solasa islatzea, eta behin hiztegia bera dute hizpide, Aita Batizek Aita Mendiriri bi

⁷ “bularr-estua (katarroa)” (62); “lurrinontzian (baporean)” (62); “ozala (saperoa)” (62); “izantzean (erretreatuan)” (88); “orgadia (trena)” (90, 174, 270); “arrebatakoari (koñatari)” (94); “aldundiak (Diputazioak)” (128); “Iztuna, (sermolaria)” (142); “bereterburu (artzipreste)” (142); “Elizgelara (Sakristiara)” (146); “opalmi (aldare)” (148, 256, 282, 292); “lobea (sotana)” (150); “izkudaburua (almirantea)” (162); “gelunera (estaziora)” (166); “elizgelaria (sakristaua)” (172); “agunak (sokak)” (174); “Aketta (kafea)” (184, 216); “andoilak (zigarro andiak)” (184); “biurezandikoak (indianoak)” (188); “aldarri egin (pregonatu)” (192); “birjosi (bordatu)” (202); “artailu (kuadru)” (208); “gaitzetsi (kondenatu)” (220); “Soina (gorputza)” (222); “sendiak (familiak)” (228); “izapidea (nonbramentua)” (234); “mintzura (boza)” (236); “elizjardunik (sermoirik)” (238); “gogokizun (intentzio)” (240); “ostotsak (trumoyak)” (248); “Etsarian (salan)” (250); “berinarki (periodiku)” (252); “inarki (paper)” (258); “zinegotziak (kontzejalak)” (260); “Elikonde (koro)” (264); “Agurtza-ostean (errosario-ondorean)” (272); “kristau-ikaskizunak (dotrina)” (272); “onedaspena (bendizioa)” (274, 288); “edergarria (grabadoa)” (274); “Itzur bezela (maximatzat)” (276); “irakastalkira (pulpitora)” (282); “eredutzat (modelutzat)” (284); “elizgelan (sakristeyan)” (288); “ttattar (korbata)” (294); “ikaspide (dotrina)” (294); “ingira (eskrupuloa)” (294); “ospatzea (zelebratzea)” (300); “jauresleai (adoratzaileai)” (306); “bezuztat (erregalutzat)” (312); “errebelar (tabako)” (312); “Opalorduan (ofertorion)” (312); “ikasgura (eskolara)” (320); “urezandiko (indianu)” (322); “aurka (kontra)” (322).

berben esangura galdetzen dionean: “*Deslái*, erdarazko ‘descarriado’ eta *garbai* ‘arrepentimiento’” (276) da.

Erabilitako euskal hitzaren esanahia argitzea da gaztelaniak betetzen duen zeregin behinena *Ardi galduan*, eginkizun horretatik kanpo apenas txertatzen delako. Vasco de Gaintza kazetariak “*buenas noches*” (162) esanaz agurtzen du Donostian ostatatuta dagoen Medel. Lasarteko komentuko Andres Artesarri kapilauak Azpeitiko apaizarentzat burututako eskutitzean kontatzen dio Leon Olazarretaren meza berriaren ospakizuna. Bertaratu zen batek, Matxinbentako apaizak, lekaimeen ama nagusiari zuzentzen zaio “*Madre*”ren (212) bitartez, berdin Leaburuko Isabelek, “*Madre*” (214). Azpeitiko Juan Jose Arizpe apaizak Medel Olazarretari idatzitakoan, Tolosako sendagileak Leaburuko Adrian Iriondo bikarioari egindako diagnostikoa jasotzen du: “*diabetes florida*” (244), “*defuncionamiento cardíaco*” (244). Belauntzako apaizak Azpeitikoari zuzendutakoan, “*Unión Católica*” (254) eta “*mestizos*” (254) hitzak itsasten ditu, eta Aita Mendiriren txostenak “*sochantre*” (266) eta “*integrista*” (266).

Alde batetik bestera igorritako gutunekin eraikitzen bada ere istorioa, korapiloa kokatzen da gipuzkeraren bihotzean, euskalki hori garbi baliatzen duten tokian, baina hortik irtetea, gaztelaniarekin topo egiten dute. Eleberriak zuen xedearengatik apropos gutxitzen du gaztelaniaren eransketa, adibidez, hizkuntza horrekin landutako bat deuseztatzen du, Leonek aitari Kaliforniara bidalitakoa, eta horren berri ematen du Medelek semeari erantzundakoan:

Ikasgu (colegio) orretan eztuela inortxok ere euskeraz eskutitzik egiten!! Eta ik ere ire aita euskaldunari erderaz egin bear? (...).
Urrengorako eska zayok orko nagusiari, aitarekin, korreoz bada ere, euskeraz mintzatzeko baimena (90).

Sartu ez den eskutitzarekin bezala jokatzen da zenbait mezurekin, nola Adrian Iriondo Leaburuko bikarioak Medeli jakinarazitakoarekin, “itsaspetik labur-laburtxo ta erderaz bederen erantzun nizun ‘dirua emen da’ esanez” (110), hala Aita Mendirik Belauntzako apaizaren esanak euskaratzearekin, “Belauntzakoak itz auek erderaz zuzendu zizkion nere lagunari” (282).

Baita euskararen eta gaztelaniaren arteko borrokari oratu ere, Lasarteko komentuko kapilauak Azpeitiko apaizari idatzitakoan. Igorle eta

hartzailearen arteko harremanak Leonen meza berria du eragile, batak bestea ordezkatu zuelako, aukeratutako aitabitxiak gaztelaniaz jardutea baztertu zuelako. Komentuan, “Igande- elizkizunetan, baserritarrengatik, euskeraz izaten dira gure itzaldi ta jardunak; astegunetan, oro erderaz” (204) diotso, eta Isabelek, Leonen izebak eta Leaburuko apaizen etxandreak, erabakitzen du larunbatez izatea, hain justu, bere ahizpa eta Leonen ama zen Eladi asteko egun horretan hil zelako. Azpeitikoaren zeregina hartu duen Andres Artesarri kapilauak hari kontatzen dio bazkalkideen arteko solasa, elizkizunaren ibilera alde batera utziz eta eransten du Lasarteko komentuko ama nagusiak adierazitakoa, “erdaldunentzat erderaz egin bear da. Badira gure artean euskerarik eztakiten lekaimak” (212), eta Matxinbentako apaizaren ihardespina “erdalerrian erderaz, euskalerrian euskeraz” (212).

Hiztegi mailako argibideei dagokienez, *Ardi galduaren* eta *Latsibiren* artean dagoen alde bakarra da latina ezabatzea, bietan euskarazko sinonimoa⁸ eta gaztelaniazko jatorrizkoa ala mailegatu⁹ baliatuz.

⁸ “ogipekoa” oin-oharrean, “morroia” (23), baina, baita “enpleadu” (63) eta “estazinoan enpleadu” (302) ere; “edapenean”, oin-oharrean, “zabaltasunean” (27); “arrotzik”, “arrotzak”, “arrotzai”, oin-oharrean, “kanpotarrrik” (28, 302), “kanpotarrak” (71), “kanpotarrai” (127); “itsutu”, “aienatu” (33); “aomen”, “entzute” (38); “obietara”, “ilerrira” (44); “kabuz”, “ustez” (46); “mezua”, “mandatua” (46, 49, 74, 207); “atera”, “kanpora” (51); “iztun”, “berbalari” (52); “elealdi”, “izketa, autu” (62); “soinak”, “sorbaldak” (64, 177); “beroen”, “sukar” (65); “mailladi”, “zulubi” (78, 107); “one-tsiko”, “ontzat artuko” (81); “garaiz”, “sasoiz” (106); “semaiko”, “txakur txiki” (107); “ikuzita”, “garbituta” (110); “aburu”, “eritxi”, (121); “marota”, “galanta” (127); “izegita”, “irazegi”, “biztuta” (116, 130), “biztu” (279); “araketan”, “ikertzen”, (130); “satsik”, “ongarririk” (137); “garbitu”, “ikuzi”, (138); “beredin”, “asko” (187); “gurenda”, “garaipen” (196, 201); “kuxelu”, “isileko mandatu”, (204); “maikide”, “mailagun” (211); “berdantzat”, “arainegun gabean” (213); “lokabetuak”, “jara eginak” (229); “yostatu”, “olgau” (232); “bilioak”, “antzarkumeak” (247); “zautu”, “yan-edan” (252, 276, 281); “berezteko”, “banatzeko” (265); “lukiak”, “azeriak” (267); “igurdausi bat”, “astinaldi bat” (269); “asgorapen”, “arnasa-goraldi” (278); “Abadene”, “Abatetxea” (281); “banatu”, “berezi” (283); “arrasti”, “arratsalde” (297); “Belutxo”, “berandutxo” (295).

⁹ “ikasgura” oin-oharrean, “eskolara” (12); “urrats”, “pausu” (15, 127, 302); “diruetsera”, “bankura” (16); “maisterrak”, “errenteruar” (20); “ikustaldiak”, “bisitak” (21); “otsein”, “kriada” (28); “gozogin”, “Gozogintxo”, “konfiteru” (31), “konfiterutxo” (166); “zalkurdidun”, “zalkurdiz”, “Zalkurdi”, “kotxeru” (31), “kotxean” (55), “kotxe” (279); “okin”, “okintzara”, “panaderu” (31), “panaderiara” (121); “arakin”, “karnazeru” (31, 49, 311); “aldun”, “aldundirako”, “alduntasuna”,

“diputadu” (34, 158, 265, 312), “diputazinarako” (186), “diputadukuntzāa” (290); “autesle”, “botodun” (34); “ikasguan”, “kolejioan” (37); “eritegian”, “gaisoetse bat”, “hospitalean” (37), “ospital bat” (94, 184); “yardun”, “discursu” (38); “yareipena”, “dimisinoa” (41); “urezandikoakaz”, “indianuakaz” (43, 159); “bazkaltegi”, “bazkaltegitzat”, “komedore” (43, 211), “komedoretzat” (76); “Ordain-agiria”, “agiria”, “erreziboa” (45, 214, 310); “aurkaritzat”, “aurkari”, “aurka”, “aurkako”, “kontrariotzat” (45) eta “kontrinkantetzat” (166), “kontrario” (54, 149), “kontra” (91, 186), “kontrako” (125); “kutxazainak”, “kajeruak” (46); “Zergak”, “kontribuzinoak” (47); “baltzik”, “liberalik” (47); “ikertu”, “esaminau” (50); “izlariak”, “izlari”, “oradoreak” (52), “oradore” (97, 181); “elizyaurri”, “patroi” (55); “zulubian”, “eskillaran”, “malladian” (56, 120); “Argimutil”, “kandeleru” (58); “ureneko”, “printzipaleko” (60); “zaldarea”, “pentsua” (61); “otoizka”, “errezetan” (64); “surzapia”, “pañelua” (68); “zugatzak”, “arbolak” (69); “mintzul”, “mutu” (76, 269, 292); “berrikari-lana”, “berrikari”, “korresponsal-arazoa” (82), “korrespontsal” (204); “arrobi”, “kantera” (84); “iruskiñak”, “iruskinak”, “iruskin”, “komentarioak” (88, 162), “komentario” (204); “Benazkoak”, “formalak” (91); “benatsu ta txordo”, “formal ta serio” (197); “batzorde bat”, “komisiño bat” (93); “kirmena”, “leiala” (94); “zêkatzeko”, “deskribiduteko” (95); “gino”, “proporzino” (96); “zeinbatzaile”, “kontulari” (102); “berinak”, “bidriok” (103); “irazketa”, “gastu” (106, 173, 271); “galenduko”, “eskrebentau” (109); “artailu”, “kuadru” (110); “atxulotik”, “tuneletik” (113); “baituretseren baten”, “prestamu-etseren baten” (114); “etsari”, “sala” (116, 147, 174, 254, 282, 288, 289, 302); “gogokizunik”, “intentzinorik” (119); “begiruneak”, “errespetuak” (119); “pendiz”, “balkoi” (119); “koratilloaren”, “txalekoaren” (119); “lauortza”, “tenedora” (124, 211, 260); “yaurri”, “tutore” (126); “ugin”, “olatu” (128); “lanka”, “banku” (130); “argiontzi”, “lanpara” (130); “beizendu”, “beizentzat”, “beizenak”, “firmadu” (132, 214), “firmatzat” (161, 245), “firmak” (271); “arrazko-otsak”, “panderu-soñuak” (133, 138); “ospatu”, “zelebrau” (134); “alderdiaren”, “partiduaren” (134); “idoietan”, “pozuetan” (142); “besana”, “manto” (144); “maltzur”, “faltsu” (146); “sendi”, “azkuzian”, “familia” (147), “familiar” (307); “dedua”, “Deduzko gizona”, “honorea” (147), “gizon ondradua” (251); “zali”, “kutxaroi” (148); “txalin”, “txaliña”, “plater” (148), “platera” (273); “pilpilada”, “saltsa” (150); “bazkalgina”, “kozinerâa” (150); “lokabetasunaren”, “lokabetasuna”, “libertadearen” (152), “libertadea” (230); “surpekoa”, “bigotea” (152, 173); “zama”, “karga”, (153, 207); “landerra”, “pobrea” (156); “Bultzia”, “trena” (158); “izpazterrean”, “koston” (158); “birridazki”, “kopia” (159, 217); “gutiesteko”, “desprezietako” (161); “Ordaindu”, “pagau” (162); “adierazleari”, “interpretari” (164); “burubideak”, “kontzejuak” (164); “itzaldia”, “diskurtsua” (164); “azierâa”, “edukazinoa” (166); “zirriada”, “inpresino” (166); “baldintasun”, “kondizino” (166); “antzelariaren”, “antzelariz”, “artistearen” (167), “artista-modura” (229); “peko bat”, “esklabo bat” (167); “esaldi bat”, “parrafu bat” (167, 181); “itarantzunak”, “itarantzunez”, “indikazinoak” (170), “indikaziñoz” (266); “yaurri”, “korrespondidu” (173); “anaitzako”, “koñiatu” (175, 207); “domua”, “balioa” (176); “sapaillo”, “balkoi” (177, 191, 208); “gelunean”, “estaziñoan” (178); “atabaka-barruan”, “atabakara”, “atabakatik”, “urnan” (186), “urnara” (187), “urnatik” (247); “oiukatu”, “oiuka”, “oiularia”, “kantau” (195), “kantadu” (266), “kantetan” (219), “kantaria” (225, 273); “Euritakoak”, “guardasolak” (195); “parizta”, “zinu”, (196, 205); “iraunik”, “insulturik” (205); “*Tamala!*”, “lastimâa” (205); “sendailuak”, “sendailluaren”, “sendailu”, “botikak” (208), “botikearen”

Latsibi eskuizkribuan geratu zenez, ez dakigu lantegi hau non kokatuko¹⁰ zukeen egileak argitaratzera iritsi bazen. *Ardi galduan* euskarazko sinonimoa oin-oharrera igortzen du eta gaztelaniazkoa kontakizuneko berbaren ondoan ezartzen du. Berdin *Latsibin*, “Azaluskeria, *hipocresía*” (52), “Zurtasuna, zurtasuna, zurtasuna (*Prudencia, prudencia*)” (67), “logarri bat, *veronal*” (145). Bi eleberrietan behin edo behin eginkizun hori betetzen dute solaskideen arteko solasek: *Latsibin*, “zer da narea edo ori? (*iQué es prosapia o eso?*)” (66), “zelan da *estasion* euskeraz” (70), “Zer da *partidarioa?*” (135), “*Azarri*. Onek zer esan gura dau? *Con expedición*” (164).

Dena den, *Ardi galduako* moldeak zabaltzen ditu *Latsibin*, dela zein mintzaira duen iturri erantsiz, “Sarrakioa, erderazko *pavor*” (90), “izlari-izurria, erderaz *epidemia de oradores*” (96), “(beste izenez ortziriak, erderazko *mondadientes*)” (148), “*Azbehiak* (erderaz *las facciones*)” (164), “Matxaku, erderaz Machichaco” (242), dela gertalekukoek usatzen duten berba euskaratuz, “*El Rácimo*, euskeraz *Mordoa*” (38), dela hitzaren maila gaindituz, pertsonaiei dariena bi mintzaireretan ipiniz, “Garatzen bat alda (*Algun negocio o así será*)” (39), “Ezta agerkailu bat, gizâgerkailua da. –*No es un comedia; es la comedia humana* ziran Busturiren itzak” (64), “narea argitsua (*ilustre prosapia*)” (66), “Esaldien amaiuneak (eztakit beste zelan euskerazkotu Viñasen *las cadencias de los párrafos*)” (77), “Amama doakiola! (*Que se le vaya la abuela*)” (100), “Ez urratsik ez lobenik (*ni un paso, ni un cornado*)” (106),

(282), “erremedio” (283); “eusle”, “suskritore” (210); “elaztuta”, “elaztegitik”, “inprentatik” (216); “inprimidurik” (210); “eredua”, “modelua” (216); “txirula”, “flautea” (214); “txakalakorta”, “baitegi”, “kartzela” (228, 250, 290, 291); “kirioen”, “nerbioen” (229); “atxitu”, “atzituko”, “atrapau” (236), “atrapauko” (267); “autortzeko”, “konfesatzeko” (247), “aizundu”, “Aizunketa”, “Aizunke-tea”, “falsifikadu” (252), “falsifikazino” (278), “falsifikazinoa” (286); “aztura”, “esperientzia” (252); “aizto”, “kutzilo” (252), “gañibetea” (260); “ingirak”, “eskrupuluak” (253); “irusakua”, “txolarte”, “tranpa” (254, 273); “margolari”, “pintore” (261); “txol”, “kopa” (263); “isuntzat”, “multatza” (265); “akurauko”, “alkilauko” (267); “oiñatz bat”, “arrastu bat” (278); “soiña”, “gorputza” (278, 286); “kisketari”, “aldabäari” (282); “Azal”, “sobrea” (291, 308); “sorta”, “pakete” (299); “zin”, “yuramentu” (306); ...

¹⁰ Edizioa egiten dutenek honela jokutzen dute: “Azkuek testuan zehar parentesi artean ipini zituan sinonimo eta gaztelerazko itzulpenak guk oin-ohar bihurtu ditugu irakurleari irakurketa erreteko asmoz. Ohar honek [sic] parentesi artean itxi ditugu, idazleak berak oin ohartzat idatzi zituaneetik bereizteko” (*Latsibi*, 1989, XXXIV).

“Azpisugearen etsera Pedro Viñas soil-soilik doa. ‘A casa del traidor solo va Pedro Viñas’ ziran bere itzak” (114), “Sarrezinak izan ziran Kartagoko berin-esiak (las vallas de vidrio de Cartago fueron impenetrables)” (120), “demokraten eredua, *modelo de demócratas*” (138), “erriaren usteak, *la opinión pública*, berak ziñoanez” (143), “basa-izlari bat (*un rústico orador* zinoan berak)” (159), “Elazkoak itz egin begi (*Que hable la prensa*)” (201), “Latsibi aita- seme dedu-deduzko uritarrak (*los honradísimos ciudadanos* izan zan Bekosoloren esakera suzkoa)” (306), eta behin, “Parkeske nago”, oin-oharrera darama jatorrizkoa, “*Pido perdón* izan ziran bere itzak” (119). Hauei batzen zaie kontrako norabidekoak, gaztelaniarekin hasi eta jarraian euskaratuz: “*nuestro activo y diligente corresponsal*, gure berrikari eragile ta maratz” (95), “*el sesudo médico*, sendalari sen onekoa” (95), “*Sacristán traidor* (Elizain azpisugea)” (107).

Kode bateratua erakustearekin eten duenez, hitz bakoitza neurtzeko premiarik ez zuenean, bi hitzetan adierazten ditu hainbat esaera. Ekimen hau ez dator Azkue eleberrigilearengandik baizik eta hizkuntzalariarengandik; izan ere, gertalekukoek gaztelania ezagutzen dutenez, kontakizunean bertan euskaratzen du, hartzailea jakinaren gainean jartzeko zein den berba egokiena euskaraz baliatzeko. Estandarizatuta ez dagoen euskararen bidez egikaritzen duenez kontakizuna, estandarizatuta dagoen gaztelaniaren bitartez zehazten ditu ezohiko diren erabilerak, istorioak garatzen diren tokietan hizkuntza ofiziala zenera joz, euskaldun oren hizkuntza ofiziala ez izan arren. *Ardi galduan* oso gutxitan eskaintzen zaio latinari eginkizun hau.

Gutun-egileek egoera soziolinguistikoa azaleratu izanagatik, gaztelaniaren arrasto txikia uzten dute, eta *Latsibin* handitzen da. *Ardi galduak* zuen xedearengatik, istorioa kokatzen du gaztelania iritsi ez den toki batean, baina hortik irtetea gaztelaniarekin topo egiten du, Donostian zein Lasarten. Osterantzekoak hitz teknikoak dira, nola sendagilearen diagnostikoa, hala Aita Mendirik eta Belauntzako apaizak erantsitakoak. Leonek aitarentzat gaztelaniaz ondutako eskutitza liburura ekartzea baztertu ondoren, *Latsibin*, bere horretan lagatzen du liberalen gudalburu Pedro Viñasek Mungian burututako mitina, oin-oharrean euskaratuz. Bi eleberriak ez ditu banantzen zenbatekotasunak bakarrik, baita nolakotasunak ere, hain justu, ikasketak dituztenak eta ez dituztenak bereizten dituelako, haien ahotsetik jariatakoa

arauaren arabera idatziz eta hauena ebakeran oinarrituz. Hortaz, *Ardi galduan* ez bezala, euskara baino gehiago usatzen da gaztelania pertsonaiaren hizkeraren erregistroa finkatzeko.

Bi kontakizunetan daude euskara tutik ez dakitenak eta ama-hizkuntza desberdinak dituztenak. Alderdi horretatik ordezkari funtsezkoak bi amerikarrak dira, Kaliforniako Alice eta Puerto Ricoko Pedro Viñas, nahiz eta, bata eta besteak, ez duten partekatzen istorioan gauzatzen duten lantegia. Aliceren ahotsetik ateratakoa *Ecos del Urumeako* kronikan soilik azaltzen da, eta Pedro Viñas da hauteskundeetan jarkitzen diren bi gudalburuetako bat. Aliceren mintzairari eusten zaio; ez, horrela, Pedro Viñasenari; izan ere, honi gorde izan balio *Latsibin*, bederen, ele bikoia izango zen kontakizuna. Egoera hori saihesteko elebitasuna ematen die egileak, Mungiako mitinean izan ezik.

Landa-eremutik kalera igarotzen denean, gutunak biltzetik kontalari bat sartzten du istorioa kontatzeko eta horrek pertsonaiek ikusten dituzten gaztelaniazko iragarpenak¹¹ itsastan ditu, baita eskutitzen azalean irakurtzen dutena bere horretan utzi ere:

En su ausencia a D. Pedro Viñas de Andrés. Urgente. / Mungúa (234), Urgentísimo. Al Lic. Pedro Viñas de Andrés. Torrealdea, diputado electo (257), Al Señor Torrealdea Diputado, eta barruan La rasgué (283), Al Lic. D. Pedro Viñas de Andrés eta bêko aldean Torrealdea, diputado electo esaten du Begik (291), A don José Andrés Bekosolo, abogado defensor de Latsibi. Cárcel de Larrinaga. Bilbao (299), Urgentísimo / Sr. D. Pedro Viñas y Andrés, Médico titular / En casa de Doña Abdon / Mungúa (308), "Urgentísimo (308), Al Sr. Diputado Torrealdea. La rasgué. O. (308), zein ogerlekoak jartzen duena, Alfonso XII por la G. de Dios, Rey Constitucional de España. 5 pesetas (245).

Nolanahi ere, idatzi oro ez da agertzen gaztelaniaz. Pertsonaien artean idazketarekin lotura nagusia duena Pedro Viñas da, baliabide honekin mi-

¹¹ "Hotel de la Concha, Ascensor, cocina la más esmerada, cuartos de baño, confort moderno. San Sebastián" (23); "Farmacia de Larrinoa" (25); "Confitería de Olabe" (25); Gaztelugatxeko horma batean ezarritakoa: "Se suplica que no se escriba en las paredes de este Santuario" (130); "PANADERIA DE ANDRAKA-MUNGIA" (132).

tinlarien mitinak gobernatzeaz bestalde, *Eco de Vizcaya* egunkariko berriemailea baita. Liberalen lehendakariak kanpainarako gudalburu izendatu zuenean, egoera soziolinguistikoa dela eta, erabiltzen diren bi mintzairak menderatzen zituen pertsonaia bat kontratatu zuenez, agindu ziezaiokeen idazkiak euskaratzea; ez, ordea, euskaraz hitz egitea.

3. *Ardi galduaren eta Latsibiren arteko aldeak*

Langai desberdinez moldatutakoak dira biak. Fikzioa baino ez du euskarri *Ardi galduak*, gutunak bidaltzen diren herrietako izenak salbu. Berdin *Latsibin*, jazoeren tokiekin, baina aurrenekoan ez zegoen historia osagaia erantsen du. Historiagile baten aipamena ez ezik, bi pertsonaia historiko barneratzen ditu, horietako baten izena aldatzen badu ere istorioan. Kontakizunean karlisten gudalburua Donato Arraitz Sagasti izan arren, oin-oharrean adierazten du egiazkoa, “Onen yatorrizko izena Donato Txopitea zan” (26) eta, bestearena, ez du mudatzen, Práxides Mateo Sagasta (1825-1903):

El Rásimoko bazkide guztiak (...) Sagastari, Sagasta zan orduko ministroen buru-ta, telegrama luze gogor bidaltzea erabagi eben (311).

Berez, benetakoa eta asmazioa nahasten ditu. Esaterako, egunkariari eta aldizkariari ipinitako izenak. Bi gudalburuek dute harremana argitalpenekin, liberalena asmatutako *Eco de Vizcayako* berriemailea da eta karlistena *Euskalzaleren* harpidedun; azken hori, hiru urtez Azkuek plazaratu zuen aldizkaria. Harpidedun horren bidez sartzen da *Latsibiren* egilea kontakizunean, Donato Arraitzek *Euskalzaleren* egoitza bisitatzen duenean, aldizkariaren zuzendariarekin mintzatuz:

Euskera utsezko albistari bat agertzen zan urte aretan Bilbon, *Euskalzale*. Zein kale ta etsetan zan ondo ekian Arraitzek. Ara eldu zanean, ateko kisketa gogor yota, zuzentzailea bera agertu ekion ta aren agotik “Zer atsegin” entzueran, barrez itz ónek zuzendu eutsazan: “Adonis-en ondorengoa ezpanaiz be, euskaldun naizana arpegi itxusi onetan ezagutu dozu, orregaitiño, abade jaun osasuntsu orrek.”

(...) Ordutixek, Arraitz sendalaria il zanarte, adiskide onak izan ziran biak (210).

Haatik, egiatasun osoari ez dio eusten, hain zuzen, gertaerak 1890ean kokatzen dituelako eta handik zazpi urtera sortu zuelako Azkuek euskara hutsezko *Euskalzale*.

Ardi galduan euskara estandarizatzea zuen helburu, ez *Latsibin*. Han, istorioa kode bateratua erakusteko bitartekoa da; hemen, liberalen portaera salatzea; han, fikzioa soilik du euskarri; hemen, baita historia ere, eta egotzitako salaketak geroago garaia aztertu duten historiagileek baieztatzen dute: maizterrak estutu¹² eta akta ugari faltsifikatu¹³. *Latsibiko* istorioa abiatzen da Santi Latsibi jaioterritik irtenaz, bere jaiotetxearen jabe den don Anbrusek galdatu ziolako bere Bilboko etxean biltzea, eta hara ailegatzean ezagutzen du asmoa, aukeratu duen hautagaiari¹⁴, bere iloba Tomas Torrealdeari, botoa ematea. Boto eskaerarekin hasitako istorioa, liberalen hautagaia eta gudalburua kartzelatuta amaitzen da egin dituzten aizunengatik.

Ardi galduak xede linguistikoa baino ez du, euskararen kode bateratua agertzen dabilenean gehitzen du euskaldunarentzat bigarren hizkuntza egokiena. Izenburuak iragartzen du pertsonaia nagusia, ardi galdua, eta horren medioz finkatzen da ikasi behar den mintzaira: ingelesa. Kontua da hizkuntza eskuratu zuen tokian, eskortatik atera zela eta bere semeak

¹² Corcuera "Apéndice: elecciones provinciales vizcainas y municipales de Bilbao (1880-1890)" atalean lekukotza bat jasotzen du: "... en vísperas de elecciones, el propietario se dedicaba a recorrer los pisos conminando a sus arrendatarios a votar liberal, so pena de desahucio o aumento de rentas". Corcuera, J., *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)*, 1979, 169.

¹³ "Los sistemas de falsificación electoral son variadísimos: desde la compra de votos (compra que también reviste varias modalidades: en metálico, en especie, pagando una comida o cena a los electores, etc.), hasta la arbitrariedad en la resolución de las impugnaciones por parte de la Comisión de actas de la diputación, pasando por la presión de los arrendatarios, la introducción de votos falsos en la urna, la creación de actas *ex novo*, prescindiendo de las papeletas originales y prohibiendo la entrada de público en el acto de escrutinio". Corcuera, J., *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)*, 169.

¹⁴ "En Vizcaya los candidatos no eran nombrados ni por el Gobierno ni por los partidos políticos, sino por Chávarri y un pequeño grupo de industriales conocido popularmente con el expresivo nombre de la *Piña* –o partido 'de los ricos', según Unamuno–". Fusi, J. P., *Política obrera en el País Vasco (1880-1923)*, 1975, 108.

pairatuko duela. Jomuga linguistikoa ez duen *Latsibin*, goibururako hautatzen du bigarren mailako pertsonaien abizena eta kalteak jasaten dituztenak. Hortaz, erantsitako eleen baliabidea korapiloaren muinetik kanpo daude bi eleberrietan. Gertalekura iritsitakoak latina eta gaztelania dira, eta bien idazketa *Ardi galduan* arauan oinarritu ostean, *Latsibin* euskaldunen gaztelaniako dialektoa emendatzen du, ikasketak dituztenak eta ez dituztenak bereiziz.

Egileak erabaki du istorioaren gunen liberalak izatea, hauen jatorria jakinaraziz zein kanpainan zehar egiten dutena azalduz, eta berri horiek ematen dira gaztelaniarekin bustiz. Karlistek gaztelania oso gutxi txerztatzeaz gainera, ez dira liberalen ildokoak, ez baitute zerikusirik ez alderdiarekin, ezta hauteskondeekin ere, baina aurrez aurre jartzen direnek partekatzen dituzte bi ereduak, araua eta ahoskera euskarri dituztenak.

3.1. Liberalen eta karlisten ahotsetik ateratako gaztelania

Esan denez, *Latsibiko* protagonistak liberalak dira, eta, karlisten alderdikoak ez bezala, barneratzen dituzte orainaren eta iraganaren argibideak. Istorioa garatzen den sasoian koalizioa da, lehenaldi hurbilean sortutakoak dira, jada badute egoitza Bilbon eta hauteskundeetara deitzean nola jokatzeko duten gaztigatzeaz bestalde, kanpainan egiten duten ibilera eza gutarazten da. Albiste hauek gaztelaniarekin zipriztinduz bistaritzen direnez eta karlistenak norabide horretatik landa daudenez, beste inguru batetakoak dira.

Ambrosio Isasti Intxaurtiaga “*Presidente del Comité Liberal*” (39) da. Jata-be badu ere jaioleku, berrogei urtez Puerto Ricon bizi izandakoa da, gazte zela bere osabak hara eraman zuelako. Liberalen lehendakariak hauteskundeetarako aukeratzen ditu ahalzungaia eta guda burua. Ahalzungaitzarako “*odolez yatabetarra*” (47) den bere iloba Tomas Torrealdea Isasti legegizona hautatzen du, eta horren arrebaren, “Tete”ren, senargaia guda burutzarako, Puerto Ricokoa den Pedro Viñas y Andres:

Puerto Ricoarra, urte atantxe Valladolid-en sendalari egina. (...).
Aitak beragana Puerto Ricora deituarren, Bilboko eritegian azturatu
bear ebala (...) urte beteko luzapena eskuratu eban (37).

Haatik, kontalariak ez du jasotzen latinoamerikarren dialektorik, guda-
buruari araua egotziz, lehendakariari, aitzitik, euskaldunen dialektoa eta
honekin batera Mungiako okindegiko Floren Andrakari:

Mungiako kartagoarren artean iru ziran liburu ta yakituria-zaleak:
Arangoiti legegizona, *Ortiz de Treviño* eskola-maisua ta *Busturi*, Beri-
nolean kutxazain egoan Jose Andres Urizar, seminarioan luzaroan
egondakoa. Beste guztiak irakurle gitxiko, yakituria bagako (31).

Don Anbrusek bere jaioterrian gauzatzen duen mitinean iragartzen du
bere kargua:

El Rásimo zer dan badakizue, *El Rásimoko presidente*, maipuruko,
maipuruko, ta presidente gauza bat dira ta, *El Rásimokoa* Bilboko
aberatsenak egin nabe ni, *El Rásimoko* buru (68-69).

Aurretik, kontalariak zehaztuta zeukan ezizen hau:

Aspaldikoa da Ibaizabalen bazterreko uri zaratatsuan bizi zan *La
Concordia Cívica*. Ezizen-zale dira bilbotarrak eta beingo baten ezarri
eutsen *Concordia* oni, batasun osoa eukalako edo, irri-izentxo au: *El
Rácimo*, euskeraz *Mordoa* (38).

Baita beste ezizen bat gehitu ere oin-oharrean: “Askorentzat *La Piña* zan
ezizen au” (38). *El Rácimoren* partez (40), *El Rásimo* (40, 87, 159, 182, 199,
200, 213, 214, 215, 217, 232, 233-234, 251, 252, 256, 274, 291) erabiltzen
du don Anbrusek, eta horrela adieraztea agintzen dio hautagai den bere
iloba legegizonari:

Emen masmordoari erderaz beti *El Rásimo* esan izan dautsagu. Ezpa-
dakik, ikasi. (‘No vengas ande mi con chichili-páchalas de abogaditos.
Aquí al *masmordo* siempre le hemos llamao en castellano *El Rásimo*. Si
no sabes, aprender’. Onetxek izan ziran bere itzak, bere eleak) (40-41).

Bizkaiko ahalduna izandako eta orain hautagai ez den Arangoitiri adiski-
de batek galdetzen dionean “zer da (...) Mungiako ‘*El Rásimo*’ ori?” (215),
erantzunean baiesten dio liberalen burua bera duela iturri:

Zuok emen *La Piña* daukazue, liberal jauntxoen baltzua. An Mungian, eztakigu euskeraz *Pino* ta *Piña* zelan esan, eta *Mordoa* esaten dogu, erderaz *El Rácimo*. Baiña zeuon artean daukazue Mungia-ondoko baserritar Puerto Ricon aberasturiko bat, don Anbrus. Eta onek, (...) eztaki bestela esaten *El Rásimo* baiño; ta orain guztiok an *El Rásimo* gora ta *El Rásimo* bêra darabilgu (215).

Dena den, ez da mugatzen ezizenetara, “*Concordia Cívica*” (87, 159, 160, 233, 252, 253) ere baliatzen da eta.

“Mordoa” horren jatorria dago bigarren gerra karlistan Bilbon frontean borrokatzen zuen gudaroste liberalaren laguntzaileetan. Laguntzaile hauek Arenalean batzen ziren gatazkaren ibileraz jarduteko: “*Urbanos* bai, bigarren karlistadako *Auxiliares*-en antzera” (60). Bilerak sendotzen joan ziren, eta *El Sitio* elkarte eratu zen 1875eko martxoaren 19an, eta kontakizuneko gertaerak jazo ziren urtean, 1890eko abenduaren 12an, “Palacio de las Libertades”¹⁵ egoitza ireki zuten. Solaskide batek don Anbrusi “*Voluntario de la Libertad* izan eizara” (39) itaundu ondoren, “*Palaciego de la Libertad* zara” (39) diotsa eta “aurrerantzean *Patriarca de la Libertad*” (39) izatea eskaintzen dio; *El Sitio* (39) elkarteko kide den ere jakin nahi du eta baietz ihardesten dio, eta *El Sition* (43) agertzen da.

Liberalena ez da alderdia, koalizioa baizik: “*por coasión eletoral*” (56), “*Ori Liberal de aristocracia da, ni Liberal demócrata. Liberal dala esan dot*” (61), “*como candidato independiente*” (63) aurkezten da hautagaia, “Torrealdea bere loba legegizona aldungai askatua (*candidato independiente*) zala, etzala *candidato liberal*” (68), “*Candidatura liberal*” (125, 187), “*Candidatura independiente*” (125, 187).

Liberalek tolerantzia eta aniztasuna oinarri dituztenez, batzarretan bildutakoek “*Pido la palabra*” (98, 100, 101, 230) eskatzen dute eta erantzuten zaie “*la tiene su señoría*” (98) esanaz, eta don Anbrusek “*Ze pido ta mido*” (230).

Kanpainan “*por combisión*” (59) erabiliko dute. Don Anbrusek jaioterrian burututako mitinean dio “*Oraingo au por combisión. Por combisión zer dan ezta-*

¹⁵ “La villa de Bilbao, su historia, proyectos, recorridos etc...”, sites.google.com/site/bilbaometro-poli/fichas/ficha-27.

kizue? *Por combisión* ba esaten dako... zelan esango dot? Eta ba... (Busturik belarrira urreratu ekion ‘*Por combisión* botoa diru bagarik emotea da’)” (69). Dirudenez, “*a la inglesa*” (78) da; izan ere, “*Por combisión* eztogu bada esan? Bai, don Anbrus. Orixe da *a la inglesa*; ta orretarako arerioakaz izkaldiak egin bear-ko doguz” (78). Haatik, hautesleak irabazteko modua ez da mugatzen konbentzitera, ezta erostera ere: “VALE VEINTICINCO PESETAS pagaderas en Bilbao dentro del corriente mes. MUNGUIA A 2 DE OCTUBRE DE 1890” (231); don Anbrusek “VEINTICINCO-ren orde z ipiñizu DIES” (231), “*cinco por cinco veinticinco ta cero*” (231). Testuinguru honetan berriro azaltzen da “*a la inglesa*” (224, 230, 232, 233), “*Corriente*” (224), “*No vale*” (232), “*a la inglesa ala a la bilbaina*” (232), “*a la bilbaina*” (232), “*a la gitanesca*” (232).

Floren Andrakak “*Las fuersas bibas*” (32), “*inkondisional*” (50), “*inkondisionalak*” (61) ikusten du koalizioa, eta euskaldunen gaztelaniazko dialektorekin adierazitako hauei batzen zaizkie gainerakoak, “*Las fuersas bibas*” (95), “*incondisional*” (136), horien artean kontalaria bera, kapitulu bateko izenburu baten bidez: “XVI. Liberal, demócrata, incondisional” (133). Don Anbrus iturri duen “*selebración del triunfo*” (199), “*El discurso de Sierre*” (199) moldeari eusten diote ikasketak dituzten liberalek, “*El discurso (...); de sierre*” (199), “*el discurso de Sierre*” (199), Arangoitik berak bi bider errepikatuz “*El discurso de Sierre*” (200).

Kontakizunean bertan azpimarratzen da liberalena koalizioa zela, eta, ge-roago, historiagileek jakinarazi dute koalizio honek karlismoari¹⁶ aurre egin ziola. Ez da zedarrizten koalizioa dela aitortzera, baizik eta erakustera, batzuen eta besteen ideiak bereiziz eta, gainera, beren artean azpisuge bat daukate.

Istoria hasten da don Anbrusek hitzordua ipiniz bere maizter Santi La-tsibiri botoa eskatzeko; ahaldun izandako Arangoitik, aitzitik, maizterrak estutzea bazterten du:

Bilboko gogaideak eskatu dausten euspina maistarrai botoa emon eragitea bada, gizonak, ez naiz giza-merkatari, *no soy mercader de hombres, no soy tratante de blancos* erantzungo dautset (52).

¹⁶ “Durante los años 1880 había funcionado en Bilbao una ‘coalición liberal’ entre monárquicos y republicanos contra el carlismo”. Fusi, J. P., *Política obrera en el País Vasco (1880-1923)*, 1975, 110.

Mintzatzeko aukeratutako hizkuntzak ere banantzen ditu. “Yo ya sabusté, yo por la Libertá” (87) dioen Floren Andrakak, “Protesto” (183, 222) bigarrenez baliatu ostean, “Hay que haser un curso de apelasi3n” (222) emendatzean, bilerako kide batek, Aranduik, “Mutil, euskeraz itz egik” (222) erantzuten dio. Baita kontalariak iruzkin bat txertatu ere:

Hay que entablar recurso de apelasi3n-en ordezekoak alziran bere itz len aitatuak. Ezin esan Gorabidea artu bear dogu? Ori esan baleu, batzarreko guztiak ulertuko eutsen bere gogamena, baia zoritxarrean arroa izan ta erderaz egin bear. Amaika Floren Andraka bizi dira gure artean or-emenka (222-223).

Don Anbrus ere ez da Floren Andrakaren iritzikoa:

Floren Andrakak *apelasi3n* gora ta *apelasi3n* b3ra ziarduan, don Anbrus bera gogaitarazo-arte. Isasti jauntxoak, (...) euskalzaletxoa zirudian. Ona zegaitik. Zalditzat *caballoa* ta txarteltzat *billetea* esanaren, gure egunotan iñor ezta lotsatzen, ez esale ez entzulerik; baia *costudera*, nai *semos*, nai *eslegir*, nai *alkordar* ta *sorpresa* nai *m3ndigo* entzunda, don Anbrusi irribarre egiten eutsen ta gurago izaten eban euskeraz yardun (223).

Pedro Viñasek seminarioan luzaroan egondako Busturiri beste ezizen bat ezarri zion, “Elizkoia zalako *el sacristán de Cartago* izentau oi eban” (94) eta, don Anbrusen etxean sartzan denean, “Busturik sotan3a ezaban erantzi, yakepean darabil” (109) diotsa eta jabeak “*¿La inoransia m3s que la siensia te gusta o qu3?*” (109) ihardetsi ondoren, gudalburuak argitzen dio esandakoaren zergatia: “Busturi bekosolotarrai salduta daukagu. Erromarrakaz isileko artu-emonak darabiltz” (109).

Liberalek mitin ugari egiten dituzte, bakoitzean bi mintzairak erabiliz: “Floren Andrakak domeka arrastian Meñakan diskurtsu bi daukaz, erderaz ta euskeraz (100)”, “Uritarrak –zinoan-, gaur arratsean (...) *diskurtsu* bi (...) Ortiz de Treviño maisuak *Caf3 de la Uni3n*en erderaz, Arandui karnazeruak (...) euskeraz. (...). Diskurtsu onen geia: *La lucha electoral*” (154), “Ienengo, Larauo, euskeraz; gero, erderaz, Floren” (220). Karlistek, ostera, mitin bat baino ez, Mungian egiten dutena, eta euskaraz soilik. Mitin horrek zenbait berezitasun ditu, kontakizunean osorik jasotakoa ez ezik, alde bateko eta bes-

teko gudalburuak aurrez aurre jartzen dituen da, karlistenenak euskaraz barririk eta liberalenenak bi eleetan, mitinlariak gaztelaniaz eta itzultzaileak hark adierazitakoa euskaratuz. Donato Arraitz da lehenbizi hitza hartzen duena eta ekitean entzuleen artean zeuden liberalek astintzen dute, Arangoitiren emazte andra Isidorak “*feo*” (182), “*Feote*” (183), “*Macaco*” (184), “*Calla, cara de vino*” (185) oihukatuz; Arangoitik “*Ahí duele*” (183), “*Fuera ese lenguaje chabacano*” (186) eta Floren Andrakak “*Protesto*” (183). Pedro Viñasek Donato Arraitz txandakatzen duenean, haren lehen berbak entzuleak isilarazteko dira: “*Basta señores, basta*” (189). Horren mitinean ere liberalen garrasiak karlistenen gaineratik daude: horiek “*Viva don Felipe Kortazar*” (190) baizik ez, eta haiek Floren Andrakaren “*Bravísimo*” (190), horren arreba zaharrenak alboko etxeoarenari ohartarazitakoa, “*Marselina, Marse –esan eban–, griteis que hable Floren Andraka; lo demás perder vamos a haser, seguro, seguro, perder*” (191), eta Martzelinak, “*Que hable Floren Andraka*” (191). Arangoitik “*No hace falta ningún intérprete*”, “*¡Bravo, amigo!*” (192), nahiz eta bere ustez gaizki bukatu zuen: “*Tipejo, todo lo has echado a perder*” (194). Andra Isidorak ere jarraitzen du “*Imbéciles*” (190), “*Aplaudid lo bueno, destripaterrones*” (193), “*Bien devuelto*” (193), “*Mi enhorabuena. Esto es hablar*” (194). Hauei, izenik gabeko liberalak elkartzen zaizkie “*Viva don Pedro*” (193) deiadarraz eta “*Muy bien*” (194) balioztatuz.

Hauteskundeetako kanpainarako liberalen gudalburu izendatzen dute Puerto Ricokoa den Pedro Viñas y Andres, eta euskaraz tutik ez dakien honek egoera soziolinguistikoaz galdetzen du. Arangoitik horren berri ematen dio:

Emen kalean bizi diranok, osoro nai erdizka ta zelanbait, erdereak bururatzen dabe; baia kaletik urten ezkerok, sei ezaldagoz basauri bakoitzean, sei gizaki, erderazko itzaldi bat ulertuko dabenik (53).

Hala izanik, ezinbestez, itzultzaile baten premia zeukan eta kontratatua izan zenak mitin horretan lana zuen, Donato Arraitzek euskaraz ziharduela, ulertezina saihesteko (“*Qué dice?*”, “*Adierazleak: ‘Que viene usted de casa de la madre’*” (182)), zein bere gudalburuaren mitina euskaratzeko. Puerto Ricokoa izanagatik, ez dario gaztelaniazko dialektorik, ezta euskararekin hutsik egin ere. Orokorrean euskara baliatzen du, noizbait gaztela-

niara joz, bai hizketan diharduenean, bai idazten duenean. *Eco de Vizcaya*-ko berriemaileak Mungiako mitinaren ebaluazioa euskaraz mamitzen du, eta izenburua *El Eco de Vizcaya con la carta de Munguia* (204) izan arren, gaztelaniazko bi esaldi bakarrik txertatzen ditu, biak karlisten gudaiburu Arraitz gaitzesteko:

... ezin kendu izaten dot neure buruti Quevedok gizon surrandi batez esan ebana: ‘Erase un hombre a una nariz pegado’. Arraitz ezagutu baleu ‘Erase un par de ojos de besugo pegados a un hablador’ esango eben madriltar idazle irrilari andiak (205).

Bi bider jasotzen dira *Eco de Vizcaya*ra bidalitako albisteen zatiren bat, biak batzen ditu karlistak erasotzeak eta banantzen ditu erabilitako hizkuntzak:

Rústicos oradores... Inspiraciones del morapio... Contrabandistas de la elocuencia... Remachadores de la ignorancia popular... El Sátiro y el Juglar” (94).

Gudaiburu den aldetik, mitinlariak mitina zertzeko moduaren erantzule da eta gain-gainean egoten da. Don Anbrusek Gatikako mitinean ahantzi duena gogorarazten dio, hurrengoan, Laukarizekoan, sartzeko:

1^o *No soy orador.*

2^o *Hijo de Jatabe, casi casi de Gatika... y Laukariz.*

3^o *Presidente de la Concordia Cívica El Rásimo.*

4^o *Frutas del árbol. Ferrocarril de vía estrecha. Primera estación: Gatika y Laukariz respectivamente* (79).

Baita bereaz arduratu ere, itzultzaileari nola bete behar duen eginkizuna azalduz, aditu bezala bost gai jorratuz, hitz-ebakerarekin hasiz (164-166). Euskararen arrastorik ez duenak ia euskara hutsean jakinarazten dio, eta bere ikasgai luze horretan gaztelaniazko esaera bat eta hitz bakarra besterik ez ditu barneratzen: aurrenekoa, erkaketa gisa ekarritakoa; bigarrena, jarritako hitzaren ordezkoa.

Mungiako mitinean, don Anbrusen tituluen berri ematen duenez, “*Presidente del Ferrocarril de Munguia, Presidente de la Fábrica de Vidrios Berino-leaga, Presidente de la Concordia Cívica de Bilbao, Presidente honorario de la*

Sociedad de oradores de esta villa” (193-194), justifikatuta daude kanpainan usatu dituzten erdarakadak, orain arte aipatu ez direnak gehituz: “*De vía estrecha*” (69), “*tren de de de...vía estrecha*” (70), “*orador patriarcal*” (89, 91, 98, 102, 182, 184, 217).

Bi gudalburuak bakarrik batzen ditu sendagileak izateak, “Arraitzek Madriden lez Viñasek Valladoliden ikasi dau” (118), eta gaztelaniaz itsatsitako esaera batek: Arraitzek “*Creo en Dios Padre*” (90), eta Viñasek hitz-ebakeraz aukeratutako alderaketa, “*Dios te salve ta Creo en Dios Padre*” (164).

Karlisten ahotsetik gaztelania oso gutxi ateratzeaz bestalde, ez dute zeri-kusirik, ez alderdiarekin, ezta kanpainarekin ere. Donato Arraitzek Mungiako mitinean erantsitakoak besteenak dira, liberalek kanpainan zehar igorri dituzten kontsignak baizik ez: “*Presidente de honor*” (182), “*Orador patriarcal*” (182, 184), “*El Rásimo*” (182, 184), “*Candidatura liberal*” (187), “*Candidatura independiente*” (187), eta honen harira burura datorkion “*Candidatura apostólica*” (187), “*honorable*” (190). Osterantzekoek ez dute harremanik politikarekin, “*Sacristan de Gatika, Heroe de Arcachon*” (35), “*cólico miserere*” (172), “*monos sabios*” (262), “*Que aproveche*” (290), “Anton Imaz ta Ezkurdi, *natural de Mendata*” (296), eta horiei emendatzen die “*Ladrón, malvado*” (289), Jatabeko botoen zenbaketa iragartzen dutenean.

Gaztelaniari dagokionez, neurriak eta zeresanak bereizten ditu liberalak eta karlistak, baina elkartzen ditu idazketa erak, bi aldekoetan daudelako arauan ala ahoskeran oinarritutakoak. Banaketak irizpide bakarra jarraitzen du, ikasketaduna izatea ala ez.

Karlisten ostean Anton Imazi egozten zaio euskaldunen gaztelaniazko dialektoa: “Bilboko eliza baten *Bajo de Capilla* ta *organista ajunto* egin nenduen” (29), “*Sertamen de Orfeones*” (29), “*beintisinco*” (156), “*asoluto*” (156), eta behin edo behin arauaren agindupean, “*Sacristan, cantor, organista*” (29), “*Orfeón Bilbaino*” (29), “*Yo soy elector de Gatika*” (70), nahiz eta azken honetan badagoen zalantzaren bat, besterik erantzuten diolako Busturik, Viñasek galdetzen dionean zelango izena den Adona:

Erderazko Abдона. Eztautsazu goizeon Anton Imazi *eleor de Gatika* esaten entzun? (76).

Antzera jokatzeko Floren Andraka liberalarekin. Floren Andrakak daraman zaldiari “*Hala, Vizconde; hala, Cabrera, que vamos a Jatabe y tenemos prisa; hala, hala*” (65) adierazten dio; “*Bravísimo*” (190) oihukatzen du Viñasen mitinean; “*Bravo*” (289) Jatabeko boto-zenbaketak aldarrikatzean edo paperean irakurtzen duenean “*yo no soy orador*” (86). Lehendakari duten don Anbrusekin, hegiagoretan izan ezik, “*Caracolada!*” (21), “*Cara... cas!*” (44), beti ebakerari eusten dio.

Liberalen buruaren, Floren Andrakaren, eta hori babesten duten pertsonaien gaztelania salbu, gainerakoena arauan finkatzen da, nola hautagai duten Tomas Torrealdearena (“*¿Quién es usted?*” (70), “*Viva el ilustre ayuntamiento de Jatabe*” (71)), hala Laraudorena (“*El Señor Arangoiti será inspector*” (214)).

Hortaz, gaztelaniaren idazketa ez da ezartzen ideologian. Ikasketak ez dituztenei xedatzen zaie euskaldunen dialektoa, eta horren erakargarri zuen Azkuek hizkuntzen gaia, ez duela baztertzen beste dialekto bat gehitzea ere, andaluziarrena, Bermeoko ahaldungaiaren bidez: “*Bermeoko Vista de Aduana* andaluzak esaten dauskuna, *pata quié desir igual, lo mezmo*” (286).

Berez, gaztelaniarekiko harremana ez da mugatzen hauteskundeetara aurkezten direnetara: iraganean, Anton Imazek Bordelen orfeoien lehiaketan parte hartu zuenean, “*Maisuak batean Muchachos, sangre, bestean Arlotes, aquí pegar*” (29) esaten zien; orainean, zaldizainak bezeroari ihardesten dio: “*¿Al Rásimo? Ya sé ande está*” (87), eta Bilboko auzitegian egiten den epaian mahaiburuak “*Tiene la palabra su defensor*” (305) dio.

Gaztelaniazko maileguak liberalen zein karlisten ahotsetik ateratzen dira. Liberalen aldekoek, “*cara ta cruz*” (25), “*konbenzidu*” (59), “*inusente*” (66), “*dentista bat*” (78), “*Estado Mayorra*” (85), “*politika lokala*” (96, 154, 218), “*sin falta*” (97, 281), “*seguru*” (134), “*partiduak*” (135), “*puntu*” (136, 137), “*Demokrata ta inkondisional*” (136), “*esentzia ta esperentzia*” (136), “*controversiarik*” (220), “*inorantea*” (220), eta behin don Anbrusek nolabaiteko nahasketa egiten du: “*Iñusente, más que ñusente!*” (160). Karlisten aldekoek, Zabaleta eskribauaren “*generalá*” (90), Santi Latsibiren “*promes*” (122), gualburuaren “*kaso konplikadu batek*”, “*konsulta-billa*” (211), “*akonpañamenua*” (265), eta Aiko ezizena zuenak jarritako bertsoak liberalek igorritako

kontsignak sartzen ditu: “*konferenzia / Libertadea ta progresoa / nai politika lokala*” (218). Alabaina, hauteskundeak irabazi nahi dituzten biek mailegu bat partekatzen dute: “*diskurtsua*” (91, 96, 100, 154), “*diskurtsua*” (92, 98, 137, 141, 246), “*diskursu*” (93). Badago pertsonaia bat hizketan mailegua eta euskarazko ordezkoa lotzen dituen ere, “*Berinoleaga egin zanean kontratista Zenon izan zan, (...). Yataben udarako etse bat egiteko (...), Zenon berau izango dala eginedun*” (246), eta “*eginedun*” horren esanahia zehazten da: “*kontratista*” (246).

Kontalariak berak ez dio uko egiten ekidin zitzakeen gaztelaniazko maileguak kontakizunean bertan ipintzeari, “*sopea*” (19), “*posporo*” (138), “*notarioa*” (175), “*termometroa*” (176), “*kartzelara*” (184), “*kartzelaratu*” (294), “*kartzelan*” (295), “*faltsifikau*” (295) eta “*zukua*”, “*arrast*”, “*barataria*”, “*egurazia*”, “*baitegi*”, “*aizundu*” oin-oharrera errotan ditu, nahiz eta kontrako norabidekoa izan ohikoena. Kontakizunean maileguaren alde egiten duenean, gutxitan eransten du euskarazko hitza eta aldrebes jarduten duenean, bai. Esaterako, “*zadorlaria*” (170, 259, 263) hobesten duenean, maileguaren berri ematen du; ez, horrela, “*sekretarioa*” (228, 266) lehenesten duenean, ez du emendatzen oin-oharrean euskarazko berba.

Ardi galduak zeukan helburuarengatik, istorioa kokatzen du gaztelania iritsi ez den tokian. *Latsibin*, gertalekuz aldatzean, justifikatuta zegoen hizkuntza hori nabarmen gehiago erabiltzea. Elebakarrak eta elebidunak dardela adierazten du, baina euskara ez dakitenak barneratzen dituenek, hauen mintzairari eusten bazion, ezinezko izango zuen euskaraz gauzatzea kontakizuna. Horregatik egileak eskaintzen die eleaniztasuna Pedro Viñasi zein Arangoitiren emazte andra Isidorari, gaztelaniaren lagin bat lagatzera mugatuz.

Latinoamerikako gaztelaniaren dialektoa txertatzeko egokiera agerikoa izan arren, baztertzen du, Puerto Ricok elkartzen baititu liberalen gudalburuak eta lehendakariak. Ikasketen mailak bereizten dituenek, sendagilearen gaztelania arauan oinarritzen da, eta han berrogei urtez bizi izandakoarena euskaldunen dialektoan sustraitzen da.

Istorioaren langaietako bat historia da. Historiagile batengana jotzen du iraganeko jazoerak bermatzeko, lehen gerra karlistako “urbanos”en eta bi-

garren karlistadako “Auxiliares”-en (60) gaineko aipamenak bilduz. Kontakizunaren orainaldian ere osagai hori gordetzen du; ez horregatik, besteen-gandik jasoz. Egilea bera da karlisten gudalburuaren benetako izena jartzen duena, Espainiako ministroen burua, liberalen euskarrien izenak eta ezizenak, “Concordia Cívica”, “El Rácimo”, “La Piña”, “El Sitio”, Bilbon zeuden elkarteak, “Orfeón Bilbaino”, “*Sociedad Bilbaina*” (212, 215)... Kontakizuneari egindako akusazioekin, ikertu dituzten historialariak bat datoz.

Azkuek erabaki du karlistak alde batera uztea eta liberalak jarraitzea. Karlistenak ez bezala, jakinarazten da nork izendatu dituen gudalburua eta hautagaia, baita kanpainan zehar obratzen duena ere. Hortaz, liberalen protagonismoaren eragilea da daukaten portaera salatzea. Lehendakaria jauntxoa da, berak bakarrik aukeratzen ditu hautagaia eta gudalburua: bata bere iloba, eta bestea horren arrebaren senargaia. Kanpainan ezartzen da hauteskundeak irabazteko modua, errentadunak estutzea, botoak erostea eta botoen aktak faltsutzea. Liberalen makurkeria horiek gaztelaniazko berben bitartez zipriztindu izanagatik, mintzairaren eta salaketaren artean ez dago lotura esturik, preseski, leporatze horietako bat euskaraz azaltzen delako, don Anbrusek bere maizter Santi Latsibiri eskatutako botoa eta ahaldungai izandako Arangoitik, aurkako iritzia duenak, gaztelaniaz arbuiatzen duelako errenteroak zapaltzea: “*no soy mercader de hombres, no soy tratante de blancos*” (52).

4. Ondorioak

Azkueren kontakizunetan, euskaraz gain erantsitako mintzaireretan bi dira gertalekuetara edo inguru oso hurbilera iritsi direnak, latina eta gaztelania, baina banatzen ditu kokaguneak, latina hil zen, eta bizi da elizkizunetan eta ikasi dituztenen artean.

Aurreneko eleberritik bigarreneira nabarmen jaisten du latina gehitzea, gutxi sartzeaz bestalde, *Ardi galduan* euskararekin harremanetan ipintzen du eta eginkizun hau kentzen du *Latsibin*. Bi eleberrietan azaleratzen dira erlijioa eta hizkuntza jasoa jatorri duten esaerak, eta ia beti ikasketak dituztenek adierazten dituzte.

Gaztelaniari dagokionez, harrapatu ez duen gertalekua harrapatu duenarengatik mudatzean, barneratzen ditu ele hori ama-hizkuntza dutenak eta kontakizunean erabilitako mintzaira ezezagun dutenak. Bi istorioetan egoera soziolinguistikoaren aztarnak lagatzen ditu eta landa giroa kalearengatik ordezkatzen duenean, ikasketak dituzten eta ez dituzten euskaldunak bereizten ditu elearen ezagueran. Ikasketak dituztenek soilik gainditzen dituzte beren ama-hizkuntzaren sistema fonikoak erasandako baldarkeriak gaztelaniaren ebakeran.

Frantsesa ez da barruratu istorioak garatzen diren tokietara, eta ailegatu den gaztelaniaren bidez argitzen da euskarazko berbaren esangura.

Berez, aztergai den bitartekoa egilearen eskutik dator, hain zuzen, musika zein hizkuntzak oso erakargarri zituelako Azkuek. Zaletasun horiek direla eta, asko landu zituenez, bazuen gaitasunik eta irizpiderik alor horiei buruz. Bi kontakizunetan daude erbestera diren pertsonaiak, indianoez gain, halakotzat jotzen ez den *Ardi galduako* Medel eta *Latsibin* musika-ikasketak hobetzeraz Milanera joaten dena. Idazleak *Ardi galduako* pertsonaia nagusia bidaltzen du Kaliforniara zehazteko euskaldunarentzat ingelesa dela bigarren hizkuntzarik probetxuzkoena, eta bestelako zioarengatik igortzen du Anton Imaz Milanera, ez italierarengatik, baizik eta musikarengatik. Bi istorioetan musikaren berri duten eta kantatzen duten pertsonaiak egon izanagatik, ez Kalifornian bizi izandakoak, ezta beste inork ere aukeratzen du ingelesezko kantarik edo konposiziorik. Gaineratutako mintzaira orotan dago musika iturri duen izenbururen bat, ingelesez eta grekoaz izan ezik. Sustatzaile desberdinak dituzte ingelesak eta italierak, idazleak zituen bi grinetak bakoitzean kokatuz: mintzaira eta musika.

Ardi galduan elizkizunetako musikari bakarrik oratu ostean, *Latsibin* profanoa nagusitzen da, erlijio-musika bitara murriztuz: bata, latinez; bestea, gaztelaniaz. Gatikako sakristauak lokarri estua badu musikarekin eta honekin elkartzen diren alderdikide karlistak musikazaleak badira, justifikatuta dago kantatzen jardutea, eta alde horretatik liberalak menderatzen badituzte ere, hauek ere lorratza uzten dute ikasketak dituztenen medioz. Hortaz, ontzaileak musikaren gaia bereziki babesten dituen pertsonaiei eskaini arren, ez die ezabatzen gogoko ez zituen portaerak dituztenei.

Ingeleseko hitz bat salbu, *Ardi galduan* emendatutako ele guztiak araua gordez idazten dira, eta *Latsibin* beste bide bat eraikitzen du, ebakera euskarri duena, behin frantsesa hor ipiniz eta gaztelaniaren bi dialekto jasoz, euskaldunena eta andaluziarrena. Euskara bateratua erakustea xede zue-
nean, nahitaez doi jokatzeko premia zuen, eta asmo horrekin ez jarraitzean askatasunaren jabe zenean era honi heltzen dio.

Esan denez, mintzaira batbederaren bultzatzailea ez da berdina. Kontakizuna garatzen diren tokietan horietako bat besterik ez da bertako euskara baldintzatzen duena: gaztelania. Zalantzarik gabe, hizkuntza hori da istorioaren bilakaeran parte hartzen duena, ez osterantzekoak. *Ardi galduan* Leonen meza berria larunbatez Lasarteko komentuan egitea erabaki duenez bere izeba Isabelek, eta hor igandean izan ezik gaztelania erabiltzen delako, Azpeitiko apaizak ukatzen du aitabitxi izatea; *Latsibin* ele horrekin zipriztintzen dira liberalei egindako salaketak. Haatik, ez du ezartzen korapiloaren muinean, *Ardi galduan* Leonen saminaren eragilea ez delako aitabitxia ordezkatu izana, aita ardi galdua izatea baizik, horregatik galtzen du nahi zuen destinoa, eta *Latsibin*, hauteskundeetan aurrez aurre jartzen diren bi alde-takoek txertatzen dutelako gaztelania, karlistei politikaren gaian euskarara mugatuz.

Ardi galduan zuen helburuarengatik ezinbesteko zuen hitz bakoitza neur-tzea; ez, ordea, *Latsibin*. Bietan asko zaintzen du kontakizunerako aukera-tutako mintzaira, baita kode bateratua bizkaierarengatik mudatzen duenean ere. *Latsibin* kontatutako istorioa dela eta, justifika zezakeen, nola tokian tokiko moldeak biltzea, hala beste euskalki baten edo euskararen gaiztoaren aztarna lagatzea, hain justu, gertalekua Bizkaiko merindade bat baino gehia-go delako, erdaldun hutsak barneratzen dituelako. Alabaina, taxu horiek sartzea baztertzen du. Ondorioz, euskararen aldaerak saihesten dituen berak, gaineratzen ditu gaztelaniazkoak, tokian tokiko moldeak (El Rácimo / La Piña) zein bi dialekto sartuz, euskaldunena eta andaluziarrena. Andaluziarrena bizkaitar baten ahotsetik irten denez, beste norbaiti eman zekio-keen beste euskalki baten erakuskaria itsastea.

Bizkaitarrei nahiz kanpokoei egileak bizkaiera bikaina egotzen dienez, dirudienez, euskara babestera dator, euskalkia bera bermatzera eta kode

bateratua duen gaztelania modu horietara zabaltzea baliatzen du pertsonaiaren izaera bereizteko.

5. Bibliografia

AZKUE, R. M.^a (1888). «Grankanton arrantsaleak» faksimilea in J. A. Arana Martija, (arg.) (1988), «Grankanton arrantsaleak», *Euskera*, XXXIII (1988) 379-389. Argitalpena, *Idatz & Mintz*, 21 (1991): 4-6.

——— (1893). *Lenengo irakurgaia. Bein da betiko* in I. Pagola, (arg.) (1986), *Bein da betiko. Batxi guzur*. Donostia: Erein.

——— (1897). «Batxi Guzur» in I. Pagola, (arg.) (1986), *Bein da betiko. Batxi guzur*. Donostia: Erein.

——— (1918). *Ardi galdua* in E. Perez, A. Toledo, (arg.) (2018), *Ardi galdua*. Bilbo: Euskaltzaindia.

——— *Latsibi*, in M. ALBERDI, (arg.) (1989). *Latsibi*. Bilbo: Euskaltzaindia eta Labayru Ikastegia.

CORCUERA ATIENZA, J. (1979). *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)*, Madrid: Siglo XXI.

ERKIAGA, E. (1985). «Azkueren 'Ardi galdua' zentsurape 1918gn.», *Idatz & Mintz*, 9 (1985): 32-33.

FUSI, J. P. (1975). *Política obrera en el País Vasco (1880-1923)*, Madrid: Ediciones Turner.

VOLTAIRE, (1878). *Dictionnaire philosophique. Oeuvres complètes*. Vol. III, Paris: Garnier.